

# **EUSKAL ALFABETATZEA: EUSKARAREN ERABILERA (1970-1990)**

**Ana Eizagirre Sagardia**

Egun, alfabetatzearen azterketa historikoek daramaten ikerketa-ildo berriei jarraikiz, zeinek alfabetatze-prozesuaren ezagutza osorako eskolaratze-prozesua ikastearekin bat tokian tokiko hizkuntzaren ahozko zein idatzizko erabilera ikertzea derrigorrezkotzat joko duten, saiatu gara, artikulu honetan, 1970-1990 epealdirako euskal alfabetatzearen ereduak marrazten, funtsean eta bereziki euskararen gizarte-erabileran oinarrituz.

Lau izan dira 70.eko hamarkadan zein 80.ekoan ezagutu nahi izan ditugun esparruak: euskararen ahozko erabilera, irakurketa eta idazketaren gizarte-erabilera, hizkuntz estandarizazioaren maila eta euskararen modernotzea eta, azkenik, euskararako plangintzaren beharraren azterketa.

---

## Sarrera

---

Alfabetatze-era bakoitza kultur prozesu barruan eta kultur prozesu hau berriz epe sozio-historiko batzuetan epe hauek markatzen dituzten joeren baldintzapean eraikitzen dela kontutan hartuz, saiatu gara 1970-1990 epealdiko euskararen erabileraren azterketaren bitartez euskal alfabetatzearen eredia marrazten lagutzen.

Haur zein helduen eskolaratze-fenomenoak euskal alfabetatzearen-tzat momentu honetan hartzen duen garrantzia azpimarratzekoa bada ere, derrigorrezko ikusten dugu euskarak izaniko gizarte-erabilerari so egitea, esparru zabal honetan garatuko baita delako alfabetatze-prozesua.

70.eko hamarkada, euskararen erabilerari dagokionez, publikotasun-mailan euskararen erabilera ezarri eta garatzeko asmotan burutuko diren ekintza eta proposamenen arloan etapa interesgarrienetariko bat dugu.

Ezin ahantz garai honetan bizi den testuinguru politiko eta soziala Euskal Herriko kultur eta hizkuntz aldarrikapenatarako ongari egokia dela. Francoren aurkako borrokak elementu hauek kuestionagaitzak egingo ditu aldaketa politikoa planteatzeko garaian. Zentzu honetan kultur proposamen eta herri-erreibindikazio bizi eta anitzen epea da.

Aipatu behar da, halaber, fenomeno honek euskararen erabilpen pribatu eta publikoaren arteko bereizketa suposatzen duela. Azken esparru honetan

izan ere galduko du garrantzia hizkuntzarekiko errepresioak, gizarte-presio eta herri-aldarrikapenak direla medio. Zentzu honetan isiltasuneko kultura batetik euskal identitatearen ezaugarrien erreibindikazio publikora igaroko litzateke.

Epealdiaren bukaeraldean delako erreibindikazio horiek beren ekintzak erregulatzen saiatuko diren erakunde sortu berrietan hezurmamituz joango direla ikusi ahal izango dugu.

Izan ere 80.eko hamarkadaren aurreko hamarkadan zehar luzaturiko euskararen aldeko adierazpen sozial horien bideratze, arautze, antolatze eta erakundetzearen garaia dugu.

Euskararen ezagutza eta erabileraren gizarteratze berria arautu eta bideratu beharra, hain zuzen, bi joera edo ikusmolde bereizi bezain garrantzitsutan ikusten dugu: batetik, euskarak bizi duen ordezkapen-prozesua gaingitu eta euskararen erabileraren berreskurapen pertsonala, soziala, kulturala eta lurraldetasunezkoa bidera dezakeen normal-kuntzaren ardatzaren inguruan ekingo duten herri-erakundeetan eta, bestetik, testuinguru politiko berriak sorturiko banaketa geografikoan eta elebitasun sozialaren eredian oinarrituz, euskararen ezagutza eta erabilera arautzen saiatuko diren erakunde politiko-administratiboetan.

Euskara, diglosia zokoratzaileren egoeran egonik, suspertze-prozesua hasten ari den gertakari sozial, oraindik orain, zatikatu eta desegituratu honetan, haur zein helduen

euskalduntze- eta alfabetatze-  
-prozesuak bultzatzearekin batera,  
euskara erabiltzeko gizarte-aukera  
desberdinak eskaintzea eta euskara  
erabilaraztea izango dira batzuen zein  
besteen helburu eta kezkarik nagusie-  
netarikoak.

Euskararen erabilpen sozialari  
dagokionez, hiru esparru bereizten  
ditugu:

1.- Hizkuntzaren ahozko erabilera,  
gizarte- eta komunikazio-esparruetatik  
abiatuz, bertsolaritza, kantagintza,  
antzerki zein zinemagintzarekiko  
erreferentzia bereziaz aztertua izango  
dena.

2.- Irakurketa eta idazketaren  
erabilera dei genezakeen bat, kultur  
gisa definituriko esparru baten barruan,  
euskal liburugintza, aldizkarigintza eta  
prentsaren bitartez aztertu ahal izango  
duguna.

3.- Hizkuntz estandarizazio maila  
eta euskararen modernotzea, hizkun-  
tzaren erabilera sozialarekin zuzenean  
erlazionaturik ez egon arren,  
alfabetatze-prozesuan nola hizkuntz  
normalkuntzan ukaezinezko eragina  
duena.

4.- Eta azkenik, plangintzaren  
beharraren azterketa, berau egoeraren  
adierazle suertatzeaz gain euskal  
alfabetatzearen prozesurako proposa-  
tzen den irtenbide posible gisa ulertua.

Testuinguru moduan aintzakotzat  
hartu behar da, halaber, hezkuntz  
esparrua, non lehen mailako  
alfabetatze-mailak lortuko diren. Beste

atal batean aipatu den bezala,  
ikastolaren fenomenoak euskararen  
ahozko zein idatzizko erabilera  
bermatuz joango den mekanismo bat  
izango dugu. Zentzu honetan  
oinarrizko suertatzen da eskolaratze-  
-prozesua euskararen erabilpenarekiko  
behatzen den aurrerakuntza ulertzeko.

---

## 1. Herri-euskara

---

Hizkuntz normalizazioaren barnean  
kontutan hartu behar dugun elementu  
bat aho-kulturarena izango da,  
hizkuntzaren komunikazio-erabilpena  
eta kultur erabilpena edo erabilpen  
erreibindikatzailerik bereiztuko di-  
relarik. Honela, euskarak gizarte-  
-komunikabideetan zenbaiterainoko  
sarbidea izan duen batetik, eta bestetik,  
momentuan indar handiz adierazi diren  
ahozko kultur erak zeintzuk izan diren  
aztertzea genuke helburu.

Ildo honetatik, bada, irratia, Euskal  
Kanta Berria eta Bertsolaritza izango  
dira, aurreko urteetan sortutakoari  
jarraipidea emanez eta bakoitza bere  
berezko ezaugarriekin, 70.eko hamar-  
kadan ahozko kulturaren esparruan  
euskara eta euskal kulturaren  
kontzientziatze- eta erreibindikazio-  
-lanari gogorkien eutsi dioten arloak.

Zeharka, eta eskuartean ditugun  
datuetan oinarrituz, euskal alfabe-  
tatzearengan izan duten eragina  
marrazten saiatu gara, fenomeno  
zabalak izanik, eremu bakoitzak  
berean, bazterrezineko bultzada eman  
diotela uste baitugu euskararen  
idazketa- eta irakurketa-prozesuari:  
euskararekiko kontzientzia piztearekin

batera, irratiek barne zein kanpo alfabetatze ahaleginak eginez; Bertso-laritzan, bertso-paperen bitartez, eta kantagintzan diska, eta kanta-liburuen bitartez.

Halaber, Irratia, Telebista eta Bertsolaritzarekin batera, euskal Antzerkia eta Zineman emango da hurrengo hamarkadan, gure ustez, eta ahozko kulturari dagokionez, euskararen normalkuntzarako aurrerapausorik adierazgarrienetarikoa.

Zentzu honetan nabarmentzekoa dira komunikabide-mailan sorturiko euskara hutsezko programazioak, hala nola, ETB, Euskadi Irratia; euskal zinemagintzaren sorrera; bertsolaritza-mailan sorturiko bertsolarien belaunaldi berria eta honekin batera emaniko gizarte-hedapen edo "boom" a; euskal antzerkigintzan buruturiko emankizun anitzak eta sorturiko gizarte-ohartzuna etab., alfabetatzerako oinarrizko suertatzen den ahozko kulturaren mailako euskararen erabileran oraindano ezezaguna izan den bilakaera suposatzen duten heinean.

### **1.1. Komunikabideak**

Komunikabideen atal honetan aintzakotzat hartu beharko ditugu entzunezko zein ikus-entzunezkoak, hots, irratia eta telebista, hauek giza erlazioetan, kultur erlazioetan eta ondorioz herriaren alfabetakuntzan eragingo baitute nahiz eta, idatzizko komunikazioarekin konparatuz, zeharkako eragina izan batipat hauena.

Euskararen erabilerari dagokionez,

telebistaren alorrean, ezer gutxi esan badezakegu ere lehenengo hamar-kadarako, bestelakoa izango dugu irratigintzan eramaniko bilakaera.

Euskara, folklore eta baserriarren mailara soilik mugatuko litzatekeen fasearen (1966. urterartekoa gutxi gora behera) ondoren, aztergai dugun epealdia bete-bete hartzten dituen bigarren fase bat ("maila diglosi-ko"koa, 1966-1976) eta hirugarren fase bat ("elebitasun maila"koa, 1976tik aurrerakoa) edukiko genituzke.<sup>1</sup>

Bigarren fase honen ezaugarriak Loiolako Herri Irrtiak 10 urteetan (1966-1976) zehar eramandako bidean ikusi ahal izango ditugu hobekien. Irrati sendo, hedapen handiko (momentu puntetan 300.000 biztanletik gorako entzulegoa eduki zezakeena) eta euskararen interesaturiko honetan esan daiteke egongo dela euskararen normalizazioa, egungo komunikabide batean iharduteko euskara gaitzea alegia.

Bertan, euskara nekazal ingurutik atera eta hiri-inguru industrialdunera eraman nahiko da, hizkuntza normalizatu batean diharduen edozein irratik eskainiko lukeen informazio ugari eta zabala euskaraz eskaini nahirik. Honek, bestalde, zenbait arazo ekarriko du: tekniko-profesional mailakoak (plantillako langilego guztia, nahiz euskalduna izan, ez da erredakzio-lana euskaraz egiteko edo eta mikrofono aurrean behar bezala hitz egiteko gai izango) eta, euskararen batasunaren eta entzulegoaren alfabetatze-mailaren arazoak, besteren artean. Arazo hauek direla eta, hasie-

ran programazioaren % 20 besterik ez da eskainiko euskaraz.

Aipagarria da, bestalde, irratiak entzulegoan duen eraginaz eta bereziki entzulegoak irratiarekiko duen komunikazio idatziaz ohar gaitezen, irratiak bertakoez zenbaitetan diotena:

“(…) Como prueba palpable de que el euskera en la emisora influye sobre los oyentes, los de Loyola dicen que si en una temporada ellos utilizan determinada expresión “agurtuaz” por ejemplo, las cartas llegan diciendo lo mismo. Y si cambian a “agurtuz”, durante otra temporada las cartas también lo harán.”<sup>2</sup>

Hasieran apaiz batzuen idatziak bakarrik heltzen bazitzaizkien euskaraz, hamar urtetara irratiaren diren idatzen erdia baino gehiago euskaraz idatziak izango dira, gramatika-zuzenketa maila altuarekin diotenez.

“Cuando el entrevistado sabe euskera nos pide que le entrevistemos en su lengua”<sup>3</sup> diote Loiolako erreportariak. Jarrera-aldaketa hau, noski, ez da berehalakoan sortuko eta, zentzu honetan aipatzekoa da ere barne- zein kanpo-alfabetatzea bultzatzearen irratiak berak eginiko ahalegina.

“En los primeros años, y todavía hoy, se insistía a los oyentes para que enviaran sus cartas en euskera, ayudándoles a ello dando los modos y clichés utilizados bien para pedir un disco o un rosario o bien para saludar a alguien (...)La propia alfabetización de la emisora ha hecho vencer el temor

del ridículo que en los primeros años manifestaban los oyentes al pedir perdón por su euskera incorrecto o por no hacerlo en esta lengua. Hoy es raro el que manifiesten esto.”<sup>4</sup>

Ondorengo fasea 1976ko Martxoaren 27an Donostia, Bilbo eta Loiolako Herri Irratiek eginiko “24 orduak euskaraz” saioak markatuko du bereziki. Euskaldun herritarren eskaerari erantzunez eginiko saio honetan ordurarteko marka guztiak hautsiko dira: egun osoa euskaraz, edozein gai jorratuz eta ondo hitz eginez, populazio garrantzitsu batek defendatu eta arretaz harturiko saioa.

Emisora bakoitzak euskararekiko jarrera berezia izan arren, maila batean edo bestean euskara beren programazioan sartzera behartuak sentiaraziko dira eta, urte batzuk lehenago honelakorik planteatzen ez bazuten ere, momentu horretan 17 emisoretatik 10ek gutxienez jarriko dute gaia mahai gainean.<sup>5</sup>

Hasierako pausua emanik, pixkanaka-pixkanaka areagotuz joango da euskararen presentzia irratiaren, iraunkor diren arazoei aurre eginez: besteren artean euskaraz ondo hitz egiten eta idazten dakien, euskal mundu sozio-kulturala ezagutzen duen, eta kultur prestaketa maila duen langilegoa aurkitzearena<sup>6</sup>.

Apostu garbia egin zuten irratiak (Donostia eta Loiolako Herri Irratiek...) gogor eutsiko diote ondorengo urteetan euskararen erabilpenari eguneroko programazioan, beste irrati pribatuek baino jarrera

zabalagoa azalduz. Orohar, halere, Iparraldea zein Hegoaldea kontutan hartuz, 30 irratitik gorako kopurua izanik Euskal Herrian entzulegoa duena (nahiz bertakoen esku ez egon gehienak), euskaraz emaniko emisioa ez da programazio osoaren erdira ere iritsiko; herrialde autonomikoetako 19 irratiek ematen duten programazio-ordu guztietatik, zazpitik bat besterik ez da euskaraz adibidez. Entzule gehien duten kateak (lau katearen artean entzulego osoaren erdia baino gehiago hartzen dutenak) kontutan hartzen baditugu, bestalde, euskara agertu ere ez dela egiten ikusten da.<sup>7</sup>

Irratigintzaren testuinguru orokor honetan, hain zuzen, kokatu beharko dugu euskara hutsezko programazio osatua eskainiko duen irratigintzaren sorrera eta bilakaera, fenomeno hau izango baita, aurreko hamarkadekin erkatuz, euskararen normalkuntzarako ekarpen nagusienetarikoa. Zentzu honetan emaniko pausuak, halaber, azterketa berezia eskatuko dute (banaketa politiko-administratiboa medio), euskararen normalkuntzaren beste zenbait arlotan bezala, Nafarroak, Euskal Autonomi Elkartek eta Iparraldeak.

Euskal Autonomi Elkartea izan da, administrazio mailan bederen, “Euskadi Irratia” sortzearekin aurrerapausorik garrantzitsuena eman duena, eta, nolabait, beste euskal herrialdeetan ere eragina izan duena<sup>8</sup>.

Irratigintza ofizialean, edo hobe esanda populazio osoari zuzenduriko irratietan, emaniko aurrerapausoa ukaezinezkoa da. Dena den, arlo

honetan euskararen alde eginiko saiakera anitzak aipatzekotan, 80.eko hamarkadan sorturiko “Irrati libre” deiturikoen fenomenoaren ezin dugu bazterrean utzi.

Herritarren borondatean sustengatuz aurrera jo duten herriari zein auzoari begira eginiko irratitxiki hauetan euskararenganako jarrera positiboa modu desberdinetan gauzatu arren (programazio osoa euskara hutsez ematen dutenak dexente izanik, denetan ez bada ere, euskara present dagoelarik), irratitxiki ofizialekin batera euskararen normalkuntzarako oinarri bihurtu dira.

Telebistari dagokionez, bestalde, aspaldiko erreibindikazioa izan arren euskarazko telebistaren eskaera (ikus besteren artean, UEU-k 1979. urtean plazaratutako manifestua), 80.eko hamarkadaren hasieran indartuko da euskal telebista eta irratia alderantziz. Eskabidearen lekuko dugu, zentzu honetan, Euskal Herrian Euskaraz herri-erakundeak buruturiko kanpaina<sup>9</sup>.

Euskal Telebista sortzen da goian aipaturiko legearen arabera, 1983ko urtarrilaz geroztik programazioa emanaz, eta hasiera bateko erdararen presentzia pixkanaka gutxituz. Beronen hedapenari dagokionez, bestalde, Euskal Autonomi Elkarteari begira sortu zen eta herri-ekimenari esker, euskal zaletasunak zein abertzaletasunak bul-tzaturik, ahalbideratu izan da Iparraldean nola Nafarroan ikusi ahal izatea.

Erdarazko komunikabideak maila diglosikotik elebitasun-maila izatera

igarotzeaz beste hainbeste esan behar da. Eusko Jaurlaritzak ETB2 kanala sortzearekin auzia konpondutzat ematen badu ere, FR3 Akitaniarako programazio berezia, Telenorte eta Telenavarra kanalaren jokabidea ikusirik<sup>10</sup> ezin esango da elebitasuneranzko pausorik eman denik ez kantitate-mailan ez eta kalitate-mailan ere.

## **1.2. Euskal Kantagintza, Antzerkia eta Zinema**

Kantagintzak badu garrantzirik eskuartean dugun (Alfabetatze-prozesua) gaiaren azterketan, oinarritz ahozko kulturaren sustraituriko fenomenoak izaki, ahozkotasunean soilik oinarrituriko helerazpen-prozesua gainditurik, ahozko adierazpena hitz idatzi ere bihurtzen den unean.

Hitz kantatuaren idazte-prozesuaren azterketak duen garrantzia gutxietsi gabe, prozesu honek momentu desberdinetan lituzkeen ezaugarri propio eta desberdinez oharturik, aurreragoko lan sakonago eta zehatzago baterako aztergai egoki deritzogu kantariaren alfabetatze-modu eta motibazioen lanketari eta oraingoan, beraz, irakurketa-prozesuaren bilakaeran duen esanahiaz arduratuko gara, erritmo eta musikaz baliatuz entzule-irakurleak bere irakurketa eta memorizaziorako gaitasunak lantzeko duen tresna garrantzitsua den heinean. Hor ditugu adibidez diska eta kantutegiak, batean zein bestean musikarekin batera kantaren testu idatzia eskainiz entzule-irakurleari, irakurtzen ikasteko zein praktikatzeko

aukera aproposa eskura dezakeelarik. Zer esanik ez, honelako fenomeno batek askoz ere garrantzi handiagoa hartuko du kantagintza bera gizarte-fenomeno zabal eta sendoa denean. Hots, Euskal Kanta Berriaren kasua: komunikabide arinagoa, zuzenagoa eta ulerterrazagoa, irrati eta kantarien mugikortasunari esker jende xehearen baitan arrakasta beroa izanikoa.

Luis Iriondo jaunak dioena “Gure herrian, publikoa irakurtzeko premia askatu duen bitarteko teknikoak izan dela kanta, esatera ausartuko nintzateke”<sup>11</sup> hein batetan egia bada ere, pentsa dezakegu, era berean, kanta (Kanta Berriaren fenomenoak batez ere) eskaini diola euskaldunari irakurketarako motibazioa, eta euskararen irakurketa erraz, arin eta hedatuaren aukera Euskal Herriari.

Euskal Kanta Berriaren sorreran eta ondorengo bilakaeran, alabaina, hainbat momentu edo eperekin egingo dugu topo. Lehenengo epea (1965-1970 inguruko aldia), Michel Labéguerieren diskak edo Nemesio Etxaniz bezalako gizonen eginiko kantutegi-lanak erreferentzi puntu harturik, “Ez dok amairu” taldearen inguruan ihardun zuten kantari, musika-tresna jole eta zenbait artistek osatuko lukete.

Emanaldi gehien, eta denboraz gehien iraun duen taldea hau bada ere, aipatzekoak dira Bizkaian, 1968an sorturiko Herrikoi, Beti Alai eta Zintzoak taldeak (zenbait taldekideren gartzelaratzeta eta erbesteratzeta zirela bide, emanaldi bat edo beste eskaini orduko desegin zena), lehenengoarekin

batera beraiek izan baitziren mugimendu berriari bultzadarik handiena eman eta talde-multzo handienak erakarri zituztenak.

1965. urtearen inguruan koka genitzakeen lehen urratsetan asmo nagusi bat nabarmentzen da beste guztien gainetik: hutsune bat betetzeko asmoa. Kantarien lana berreskurapen-lana izango zen, batipat. “Kantatzeko era herrikoi baten errekupeazioarekin batera –kanta zaharrak ere jasoz– hizkuntzaren eta herriko kontzientziaren errekupeazioa.”<sup>12</sup>

Bigarren epe bat (1970-1975)<sup>13</sup> asperdurak, kritikak eta konparaketek eragindako epealdia izango dugu. Azken urteetako joerek sorturiko asperdura eta monotonia gainditu nahirik, estetika eta espresioaren lanketa paregabe bat eskainiz, sortuko du “Ez dok amairu” taldeak, J. A. Artzeren eraginez, “Baga, Biga, Higa” espektakulua, 1970. urtearen inguruan; “razionaltasuna” eta “profesionaltasuna” errebindikatuz, funtzionaltasun estetikoaren alde egindako planteamenduaren lehengo fruitua <sup>14</sup>. Ekitaldi honek ez du Hegoaldean parekorik izango, “Ez dok amairu” taldea desegina geratu ondoren, 80.eko hamarkadararte.

Kantari zein ekitaldiei herriak eginiko kritikak bultzaturik, erreflexio eta apaltasunezko jarrerak hartuko dira aurrerantzean, iraganari begirada botaz, folklore-kantak aztertu, eta berauek ere protesta-moduko kantarekin batera lantzen hasiz. Epe honetan sortuko dira, hain zuzen, herriaren

artistatzat hartuko diren hiruzpalau kantautore handiren inguruko onarpen publiko orokorreko fenomenoak<sup>15</sup>. Errezital berezi eta kantaldi masiboen garaia, kantaldi landu, ongi antolatuak (Galeusca-k etab), frankismoaren hondamendiak sorturiko giro askeagoan murgilduak <sup>16</sup>.

Hirugarren garaia, Francoren heriotzaren ondorenak mugatuko luke. (1976-1977). Zentsura-erak, politikagintzarako askatasunak, etorkizunarekiko itxaropenak ekarriko dute kantarien ugalketa nabarmena. Edozein izan daiteke kantari une hauetan, disketxeak herriz herri kantarien bila, alderdi politikoak ere lider liriko berriak bultzatuz ibiliko direlarik.

Egoera berriak eskaintzen duen politikagintzarako aukerak sortaraz ditzakeen ondorioak ere ikus ditzakegu euskal kantagintzan “Azken 2 urteetako kantagintzaren hutsunerik handiena, mitinaren arriskuan erortzea izan da”<sup>17</sup> Kantagintza politikakerian erortzearekiko kezka nabarmentzen hasiko da eta, honela, testuinguru politiko nahasiak eragindako egoera honetatik ihesi, Euskal Kanta Berriaren aldaketa kritiko baten beharrari lotuko zaio aurrerantzean kantaria: emandakia formaz zein edukiaz aberastuz, tematika zabal eta era berean barneratuago batera joz, kanten estetikari arreta handiagoa jarritz, eta kantak, funtzionaltasun politikoarekiko izandako menpekotasunetik askatu nahirik<sup>18</sup>.

Ezin ulertu izango dugu, alabaina, Euskal Kanta Berriaren fenomenoak,



baldin eta ez baditugu aldi berean ikusten bere garaian ziren gizarte-bitartekari edo -baliabideak. Zentzu honetan berezibiziko garrantzia hartuko dute Euskal Herriko txoko guztietan, festak edo kultur asteak direla eta, eratu eta antolatuko diren kantaldiek. Edozein arrazoi edo aitzaki nahikoa izango da kantaldi bat muntatzeko. Beste inola ezin zenean, herritarrak elkarrekin biltzeko zuten aukera bakarrenetakoak izanik, herriaren erreibindikazioak agertzeko balio izan dute eta horiei esker ere ikasi izan ditu herriak kanta-sail ugari, gaurdaino lagun-giro, famili zein eskolaren bitartez, idatziz zein ahoz iraun duten kantak.

Era berean, irratiek eginiko lana (60.eko hamarkadan sorturiko Loiola, Segura eta Arrate irratiek eginikoa batez ere) ezin alde batera utzi momentu honetan. Euskal gizarteari buruzko lanari heltzeko borondatea lehen aldiz agertzen delarik irratian, Euskal Kanta Berria gertutik jarraitzeko borondate eta ahalegina azaltzen baitute<sup>19</sup>.

Halaber, euskal diskagintza izango da eremu honetan aldaketarik nabarmenena biziko duen beste gertakaria: Euskarari arreta eskasa eskaintzetik, Euskal Kanta Berria bereganatzearekin, diskagintzaren euskalduntze oso edo ia osora iritsiko da.

Ildo honetatik, Siadeco-k eginiko azterketari jarraituz, 1960. urtea baino lehen euskararen presentzia (single-delakoetan) % 50era ez iristetik, 70.eko hamarkadaren lehen erdian % 50 baino handiagoa eta 76. urtean

erabatekoa izatera igarotzen dela ikus daiteke. 1965-1969 urteetan zehar euskaraz soilik diren diskek % 36'66 osatzen dute, 1975-1976 bitartean, aldiz, euskaraz soilik diren diskak % 91'66 eta produkzio osoaren % 70'81 osatzen dute. Kontutan har era berean, bi urte hauetan aurreko 15 urteetan baino diska gehiago izan zela kaleratua. Diska txiki edo "Single" delakoetan, bereziki, Kanta Berriaren lana aipatzekoa izango da %100 euskaraz egitea lortzen baitu<sup>20</sup>.

Euskal Kanta Berria azaldu badugu ere 70.eko hamarkadako gizarte-fenomeno nagusienetariko eta adierazgarrienetariko gisa, bigarren hamarkadan euskal antzerkigintza eta zinemagintzan emaniko pausuak aipatuko ditugu, euskararen modernotze nola normalkuntzarako aurrerakadaren adierazgarri suertatzen diren heinean.

Zinemagintza dugu euskal kultur munduan, oraindano landu gabea izan den fenomeno berria. Beronen izaera eta testuingurua ulertzeko, ordea, bi alderdi bereizi beharrean gaude: euskaldunak filmeak euskaraz ikusi eta entzuteko duen aukera batetik, eta euskaraz egiten den zinema bestetik.

Lehenengo alderdiari dagokionez, bistan da Euskarazko Telebista edukitzeak eskaintzen duen aukera, erdarazko filmeak euskarara itzuliak ikus-entzuteko aukera alegia. Bestelakoa da ordea, euskarazko filmeen ekoizpenaren kasua.

Euskarazko ekoizpenak duen errentagarritasun ekonomiko ezari (oso

merkatu murrizta duen kostuarekin konparatuz) Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzak<sup>21</sup> banatzeko garaian jarritako baldintzak eransten badizkiogu<sup>22</sup> bikoizketa nagusitzen eta nagusituko dela ikusten da, euskarazko zinemagintzaren kaltetan.

Zinemagintza euskal munduan fenomeno berria izaki, lehenengo pausuetan dagoela esan dezakegu, antzerkigintzarako, halabaina, gorpuzte- eta hedatze-garaia genuke 80.eko hamarkada.

Inoiz baino gehiago, gutxi gora behera 30 bat talde izango dira euskarazko obrak ematen dituztenak, 20ren batek egingo dutelarik soilik euskaraz<sup>23</sup>. Testuinguru honetan, euskaraz diharduten taldeak kopuruz ugaritzeaz gain, hauek gizartean izaniko oihartzuna ere biziki areagotu dela esan daiteke: kale-antzerki mailan izandako harrera onarekin batera hor dugu “Ama begira zazu” antzerki ikuskizuna edo “Funtzioa” telebista ikuskizunaren inguruan emaniko gizarte-fenomenoa lekuko. Ikuskizun hauek izaniko harrera masiboa berriak euskaldungoaren emaniko aldaketa koalitatiboaren berri emango liguke, hots, kultur ikuskizunen kalitatearen eskaera (ez du edozer adierazpen kulturalik balio euskaraz egina izateagatik), eta hizkuntzari dago-kionez ere, euskara batuaren ezarpenak zeharka sorturiko hizkuntza hotz, zenbaitetan arrotz eta urrunaren aurrean herri hizkerarengandik hurbil dagoen hizkera fresko eta arinaren zeharkako eskabidea.

### 1.3. Bertsolaritza

Lehen kantagintzarako aipatu den zenbait ezaugarri aplika diezaiokegu ere Bertsolaritzari, bakoitzari, noski, bere berezko eremua errespetatuz. Ahozko komunikazioan sartzen den heinean, eta gizarte-harrera eta hedapen zabala duen heinean, euskal kulturaren helarazle eta sortzaile garrantzitsu egiten zaigu fenomeno hau. Kultura idatziaren arloan, aldiz, bertso-papera izango da bertsoaren komunikaziorako baliabide nagusia, beroni lehen diskarentzat aipaturiko ezaugarri nagusiak aplikatuko litzaizkiekeelarik.

Gerraosteko isilaldiaren ondoren, 60.eko hamarkadan indaberrituko da gure herrian hain tradizio luze zein garrantzizkoa izan duen Bertsolaritza: Bertso-paperak, batetik, indartuko dira Euskaltzaindiak 1962. urtetik aurrera urtero antolatzen hasiko den “Xenpelar Saria” bezalako lehiaketek bultzaturik. Giroa lasaitu zenean, bestalde, bertso-jartzaileak ere hasi ziren beren bertsoak zenbait euskal aldizkaritan argitaratzen<sup>24</sup>; halaber, lagungarri izango zaio Bertsolaritzari Auspoak 67/68 aldera edizio bereziak ateratzeari ekitea.

Bertsoaren adierazpen idatziaren eremuan aurrepausuak eman izanarekin, beronen adierazpen publikoa ere berrindartuz joango dela esango genuke, Txapelketa Nagusia dena eta jaialdia bereizi beharko genituzkeelarik 70-80 epealdirako. Lehenengo kasuan, Txapelketa Nagusiaren kasuan alegia, etenaldia edo isilunea izango da hamarkada honetan nagusi, ez baita

67/70 inguruan eginiko txapelketez gain besterik burutuko 1980. urterarte<sup>25</sup>; Txapelketen izaera, epaimahaiaren kalifikazio-sistema etabarrez sorturiko istiluek ezinezkoa egingo dute hurrengo hamarkada arte beste Txapelketa Nagusirik antolatzea. Ez dira, halere, orduan txapelketaren inguruan sorturiko eztabaidak han bukatuko, aurrerantzean egingo diretan ere berpiztuko baitira, nahiz hamabi urteko geldialdia bizi izan.

Jaialdiei dagokienean, aldiz, ez da etenaldirik somatuko 67. urtetik aurrera ugalduz joango direlarik espektakulu-baldintzetan eginiko bertso-jaialdiak. Herriz herri eginiko jaialdietan, bertsolaria bertsogintza soziala garatuz joango da<sup>26</sup> momentuko egoera sozio-politikoari egokituriko gaiak ikutuz nabarmenki, izkutuan hasieran (hitz eta adierazpenen bigarren zentzuari helduz) eta egoera politikoa aldatu ahala era argiagoan. Bertsolariaren entzulegoa ere berria izango da: Franco-ren aurka dagoena, gazteria politizatuagoa, berak esan ezin duena eta sentitzen duena bertsolariak esatea espero duena etab.<sup>27</sup> Honela, 60.eko hamarkadan hasten den Bertsolaritzaren gorputz-hartze berri hau bere horretan mantenduko da 1980. urteraino, aldaketa handirik gabe beraz.

Honela, 12 urteko etenaldiaren ondoren 1980. urtean eginiko Euskal Herriko Txapelketa Nagusia izango da bertso-eskola berri baten abiada markatuko duen adierazgarritzat hartua.<sup>28</sup> Eta Amuriza izango da, hain zuzen, aldaketa historiko honen protagonista nagusia, bapateko bertsolaritzan oinarrizkoak diren

elementuetan ekarpen propio bezain berriak emango baititu: gaien lanketa biribila literatur baliabide ugariz hornitua, hizkuntza landua eta batua, bertso-egituran teknika landu ugari etab.

Bertsogintzaren joera edo eskola berri hau sendotuz<sup>29</sup>, hedatuz<sup>30</sup> eta errotuz<sup>31</sup> joango delarik, bigarren gertakari nagusia 1985-86 urteko txapelketa izango dugu. Honen inguruan sortu eta gauzatuko da, aldiz, bertsolarien artean elkartzeko premia eta, ondorioz, 1987. urtean Bertsolarien Elkarte martxan jarriko da, besteren artean, eskolatzearen koordinatzea zein bertso-paper lehiaketak antolatzeko lanak hartuz bere gain.

Bertsogintzaren kontzeptzio berriak, eta espreski bertsolaritzari begira sorturiko antolaketa berriak ekarriko du, halaber, 80.eko hamarkada honek ezagutu duen inoiz ez bezalako mailarik garaiena kalitate zein kantitate aldetik, bertsolaritzaren “boom”tzat har daitekeen fenomenoaz hitz egingo delarik. “Boom”a diogu, gizarte-fenomeno gisa, esandakoarekin batera, entzulegoarengan eman den aldaketa ere nabarmena izan baita: entzulego ugari saio berezi edo sariketa-txapelketa modura ematen diren bertso-saio ugarietan zein Txapelketa Nagusietan, gazte ugari (bertsolaritza ondo pasatzeko era izateaz gain, hizkuntzan aurreratzeko bide egoki bihurtu da) euskaldunberrien zaletasuna ere gero eta nabarmenagoa izan delarik (bertso kantari zein entzule gisa). Honela bada jende gehiagok ezagutuko du bertsoa zer den, nola burutzen den eta beraren

teknika nolakoa den (lehen gutxi batzuen esku zegoena). Bertsolarien zein bertsozaleen belaunaldi berria agertzen eta, hein berean, gailentzen hasten dela esan dezakegu. Bertsolaritza euforiaren gailurrean izango dugu, beraz, Kanta Berriaren beherakadarekin bat.

---

## 2. Kultur euskara

---

Aurreko urteekin konparatuz gero, oraingo epealdi honetan (1970-90) garrantzi handikoa izango da euskararen produkzio idatzia eta bibliografiazkoa koantitatiboki zein koalatiboki, nabarmenduko direlarik argitaletxe berrien sorkuntza, aldizkari berrien sorrera edota iraganekoen birmoldaketa eta, euskararekiko gizarteak hartzen duen jarreraren bilakaera.

Nahiz eta nolabaiteko irakurle-tipologia (zein populaziok irakurtzen duen euskaraz, bere joera politikoa zein kulturala zein den etab.) eskaintzen digun azterketa soziologikorik izan<sup>32</sup>, ez dugu epe honetarako euskal irakurlearen azterketa soziologiko zehatzik: nola irakurtzen duen, zertarako eta zerk bultzaturik irakurtzen duen esango ligukena hain zuzen.

Hutsuneaz jabetuz, puntu honetan aztertuko diren gaiak ekoizpenaren alderdia ukituko dutenak izango dira batipat (liburu-ekoizpena, aldizkari zein prentsa-ekoizpena eta argitaletxeak), eta ez hainbeste kontsumitzaile eta erabiltzailearena.

Argitaletxeei dagokienez, bada, azpimarratu nahi genukeen aspektua

honako hau da: euskara bezalako hizkuntza minorizatuaren kasuan argitaletxe bat mantentzeak eskatzen duen esfortzua, militantzi maila handiari heldu behar izatea suposatuko duelarik. Argitaletxeen tipologiaz, bestalde, euskara hutsean argitaratzen dutenez gain euskal kultura erdararen bitartez bultzatuko duten argitaletxeen pisu gero eta handiagoa azpimarratuko genuke, azken fenomeno honek euskalduntze- eta alfabetatze-prozeduraren eragin zuzena ez izan arren, euskararekiko eta euskal kulturarekiko kontzientziaren pizkundean eragingo duen heinean.

Bibliografi ekoizpenaren eremuan, halaber, bi alderdi nagusi azpimarratuko genituzke: batetik, literatur ekoizpena (ekoizpen konkretu honetaz azterketak ugarituz doazelarik, kalitate zein kantitatearen alderdietatik), eta aldizkari eta prentsaren ekoizpena, bestetik.

Aldizkariari dagokienez, nolabaiteko aldizkari espezializatuen indartzearekin batera, azpimarratzekoa da, gizarte-eskaerak eraginda, lehendik zetozen zenbait aldizkariaren birmoldaketa. Honela, 70.eko hamarkadan sorturiko JAKIN, ARGIA eta ELHUYAR aldizkarien errotze eta itxuraberritzearekin batera hedapen zabaleko zein murrizteko eta ezagutza arlo desberdinak (literatura, politika, soziolinguistika, antzerkia...) landuko duen hainbat eta hainbat aldizkariaren sorrera ikusiko da, berauen irakurlegoa ere maila batean hazi dela baieztatu daitekeelarik.

Euskal liburugintzaren azterke-

tarako J.M. Torrealdai jaunak JAKIN taldearekin batera eginiko bilketa- eta azterketa-lanaz baliatuko gara, ez, noski, aldez aurretik gure eskerrik beroenak azaldu gabe eginiko lanagatik; lehenik, bere, *Euskal Idazleak Gaur*<sup>33</sup> liburuan eta JAKIN aldizkarian ondoren, argitaratuz joan den bilketa-azterketa lana baita oraingoz euskal liburugintzak izan duen bakarra. Bide batez aipatzekoa da lan honetan elkarte pribatu batek, eta ez erakunde ofizialik (I.S.B.N. soila egingo duenik), aritu behar izatea oraindik orain 1992. urtean. Euskal gizartean euskal produzio idatziaren zokoraketaren beste adierazgarri berau ere.

Aldizkarien kasuan bezala, liburugintzan ere antzeko ugaltze-fenomenoa ezagutuko dugu, urtez urte gehituko baita euskal bibliografia eta hedatuz joango baita ere, ezagutza-alor desberdinak pixkanaka-pixkanaka ukituz. Zehazki liburugintzari dago-kionez, halere, badira aintzakotzat hartu beharreko beste fenomenoak: haur- eta gazte-literatura sailak eta irakaskuntza-sailak bereganatzen duten gero eta ekoizpen-proporzio handiagoa batetik, eta bestetik, itzulpen-gintzarako dagoen joera gero eta nabarmenagoa. Joera hauek, hain zuzen ere, adieraziko digute sortzez euskaraz zer eta zenbat idazten den, euskara idatziak, bestalde, zein irakurketa-zirkuitu duen eta, bide batez ere, zein den euskal liburuaren eroslego eta, maila batean, irakurlego nagusia.

Aipatu joera hauek, noski, liburuaren merkatuaren eta zehazki,

argitalpengintzaren testuinguruan ulertu beharko ditugu, azken batean argitaletxeak baitira liburuaren bat argitaratzeko garaian azken hitza dutenak eta, ondorioz, merkatuan eskaintza kontrolatuko dutenak.

Zentzu honetan hiru fenomeno hartuko genituzke, 80.eko hamarkadan, nagusi bezala: aurretik sorturiko argitaletxe batzuen sendotzearekin batera argitaletxe txiki ugariaren sorrera batetik, erakunde publikoek finantzaturiko liburugintza bestetik eta, azkenik, euskal liburugintzaren merkatuan Euskal Herrikan kanpoko argitaletxeek izaniko sarrera.

Alabaina, aipatu joerek hamarkada honetako idazketa eta irakurketaren nondik-norako soziala ezaugarritzen badute ere, ordea, guzti hauen gaintik bada bereziki azpimarratu nahi dugun gertaera, euskal egunkari baten sorrera hain zuzen ere. Euskal alfabetatzearen gizarte-prozesuaren oinarrizko klabeak ezagutu ahal izateko Egunkariaren sorrera (herritarra), izaera (ireki eta partehartzailea) eta beronen erabilera-aren (indibidual zein soziala) azterketak aukera aparta eta paregabekoa eskaintzen duen heinean, garaiko gizarte-fenomeno adierazgarrienetarikotzat eta euskal alfabetatzearen prozesurako funtsezko elementutzat hartuko dugu Egunkaria.

## 2.1. Argitaletxeak

70.eko hamarkadaren hasieran biziko du Euskal Herriak argitaletxe zein liburu ekoizpenean bultzadarik handienetakoa, gerraostean oso hedaturik zegoen egile argitaratzaile

sistemaren aurrean argitalpengintzaren kultur politika baten beharra erreibindikatuko duten oihuak entzungo direlarik behin eta berriz<sup>34</sup>. Honela, 1968-1975 epealdian sortuko da argitaletxe berri ugari: Gordailu (Donostian 1969; Lur (Donostian 1969); Irakur Saila (Donostian 1969); Etor (Donostian 1970); Jakin (Aranztzun 1971); Iker (Bilbon 1973); Gero (Bilbon 1973); Elkar (Baionan 1973); Kardaberaz (Tolosan 1974); Kriselu (Donostian 1975);...Kultur politikaren beharrak gidaturik militantzi lan handia egingo duten kultur talde desberdinek sostengatuak<sup>35</sup>. Argitaletxea liburu-argitaratzaile soila baino, animatzaile eta sortzaile izan behar duelako uste sendoaz, kreaio-lana bultzatzearekin batera obra ospetsuen (politika, filosofia, literatura etab.en) eta haur eta gazteentzako liburu-motaren itzulpengintzari helduko zaio batipat. Garai honetan kaleratuko diren tesi eta saiakera-liburuen kopurua, hain zuzen, ez da berriro errepikatuko euskal liburugintzan ondorengo urteetan.

1974-77 urte bitartean etorriko da joera hedatzailearen murrizketa. Arrazoi desberdinak direla medio: egitura-mailako arrazoiak, ordurarteko euforia aurreiraultzailea suntsitu eta proiektu kultural kolektiboekiko lilura galdu izana, diru-eskasia, merkatu-urritasuna, kantagintza eta idazgintzak sofrituriko beherakada etab., argitaletxe txikiak desagertuz joango dira eta, irauteko gai direnak alor jakinetan espezializatu beharrean aurkituko dira, ekoizpen-erritmoaren moteltzearen ondorioz<sup>36</sup>.

Hasiera batean haustura politikoa argitaletxeetatik etorri bazen ere (merkatu bereizi eta argirik gabe, ikastolek eta alfabetatze-kanpainak sortuko zituzten aldaketen itzaropenak bultzaturik), kultur beharren arabera aldatuz joango dira ekite-irizpideak hamarkadaren bigarren erdialdean sartzen garen ahala. Ikastolek sorturiko beharrei erantzun nahirik gero eta nabarmenagoa izango da irakaskuntza-liburuarekiko arreta berezia; jokabide-ardatz berritatzat profesionaltasuna hartuko da (artisaizko argitaletxe izatetik, argitalpen-enpresa izatera igaro); “tekniko” eta enpresarien eskuetan geratuko diren etxe hauetatik liburuak askoz ere arreta gehiagorekin argitaratuko dira, egile-eskubideak modu gero eta sistematikoagoz ordaintzen hasten dira, zenbait egileri profesionaltasunaren bidea zabaltzen hasiko zaio. Baina bestetik, lehenago nabarmen zen idazleen inplikazioa pixkanaka ia erabat galduz doa, nahiz literatur liburuaren promozioa aintzakoztat hartzen hasi, urteak pasa ahala irakaskuntzaren agindu eta eskaeretara makurtuko direlarik. Eta agian gertaturiko hausturarik funtsezkoena hauxe izango da: nahiz indarra eta sendotasuna lortu, kultur proiektuekiko eztabaida sustraitik etenda geratzen da.

Norabide berriaren adibide Elkar, Erein eta Hordago argitaletxeak ditugu, azken bost urtetako panorama marraztuko duten argitaletxeak hain zuzen. Egituraz, momentuan egon daitekeen edozein argitaletxe txiki baino askoz ere indartsuagoak, irakaskuntza-munduak emango die, bereziki, merkatu-errentagarritasuna<sup>37</sup>.

Arazo ekonomikoekin estuki loturik joango da, bestalde, euskal irakurle-goaren egoera. Merkatu murrizaren aurrean, argitaletxe gutxi dago soilik argitaletxe izanik euskal liburuan lan egingo duena. “Con la edición de este tipo de libros, una editorial no puede subsistir profesionalmente, a no ser que se apoye en libros de aprendizaje del euskara o en libros para la ikastola.”<sup>38</sup>. Iraun ahal eta nahi izateak, eramango ditu argitaletxeak pixkana-pixkana irakaskuntzari begira eginiko liburuaren ekoizpena indartzera.

Argitaletxeen kultur politika erabakiorra izan bazen euskal liburgintzaren berpizkunderako, sorkuntza-lanaren garapenerako, era berean erabakior suertatuko da berauen hizkuntz politika euskara batuaren finkapen eta hedapenean, zuzendaritzalana egitera beharturik, argitaletxe beraiek izan baitira euskara batu egokian irakurria izan dadin liburu zuzendu eta konpondu izan dutenak behin baino gehiagotan; hizkuntz erabakiak finkatzen eta errotzen lagundu dutelarik, idazleekin batera.

“Pero como en la cultura vasca tienen un peso normativo los libros, hay que cuidar con esmero las faltas. Por exigencias de comprensión (por falta de alfabetización, el lector puede leer con gran dificultad) el estilo y la forma de escribir hace que se cambien muchas frases en las editoriales.”<sup>39</sup>. Zentzu honetan euskaraz soilik argitaratzeaz arduraturiko argitaletxeak izango dira, 70.eko hamarkadan, protagonismorik nagusia hartuko dutenak; hizkuntzarekiko jarrera erabakiorra izango baita argitaletxean

eta ondorioz irakurlegoan. Hauen joera garbi azalduko da: kultur hutsunea murriztu. Tamaina honetako ekimenean sartzeko izaniko motibazioak, bestalde, ederki ikus ditzakegu Siadeco-k eginiko azterketan<sup>40</sup>: Euskarari zor zaiolako gure lana, Euskal Herriko eta bere kulturaren dinamika euskararen bitartez eraman nahi delako, euskararen gaurkotasuna finkatu nahi eta gure herriaren berrindartzean parte hartu nahi delako, helburua euskaraz idaztea delako, etab. izango dira emaniko arrazoietakoa batzuk. Nahiz motibazio desberdinak izan, guztiak kulturari loturikoak ditugu.

Argitaletxe gehienek, bestalde, euskara batuan argitaratuko dituzte lanak, nahiz eta tartean izan ez erabiltzeko erabaki garbia harturikoak (Auspoa, Etor, Kardaberaz, adb.) eta irizpide garbirik gabe originalarekiko errespetuan oinarriturik dihardutenak (Itxaropena). Guzti hau, noski, euskaraz maiz argitaratzen duten argitaletxeen kasuari dagokio, noizean behineko euskal argitalpenak egingo dituztenetan askoz ere toki gutxiago hartuko baitu euskara batuak.

Ondorengo urteetan, 70.eko hamarkadaren erdialdetik aurrera nagusituriko ildoari jarraipena emango zaio: euskal liburuaz eta euskal gaiaz arduratzen diren argitaletxe gutxi egonik (Elkar, Erein, Hordago...), batzuen esku geratuko da liburugintza nagusia. Eta, besteak beste, profesionalgintzan oinarrituriko argitaletxeak lirartekeen hauek merkatu-premia larriei erantzutera bideratuko dute bereziki beren inbertsio nagusia (Elkar, Erein, Kriselu, Gero...).

Bestalde, Elkar eta Erein argitaletxeak batipat, finkatuz eta sendotuz doazen heinean<sup>41</sup> egile argitaratzaile (X. Gereño,...) eta argitaletxe bihurtu ezean argitaratzen duten taldeez gain, argitaletxe berri ugari sortuko da 1982. urtetik aurrera bereziki, hamarkadaren bukaeraldera editorial txiki, egile editore kopuru dexente eta argitaletxe handien artean sakabanatua geratuko delarik liburugintza. Egitura eta indar ekonomiko eskasekoak, ekoizpen murrizta eta estabilitate txikikoak izan arren gogor helduko diote, ordea, hamarkada osoan zehar beren lanari.

Euskal enpresa edo taldeen esku dauden argitaletxeen ugalketa eta aniztasun honi, halaber, 1987. urtetik aurrera indartuz doan kanpotar argitaletxeen fenomeno berria gehitu beharko diogu, berauek orain arte ezer gutxi arduratu badira ere euskal liburugintzaz, euskal irakaskuntzak eskainiriko merkatuak erakarrita edo ekingo baitiote euskal liburua argitaratzeari. Hain zuzen ere, 1987. urteko euskal liburugintza osoan ia 50 libururen argitalpena beren esku egongo da. 1988.an, berriz, 12ren bat argitaletzek argitaratuko du euskaraz, produkzio osoaren % 10 eta 1989an % 10-12 artean ibiliko da berauen produkzioa, beste bi argitaletxe gehiago ere sartuko delarik euskal liburuaren ekoizpenean<sup>42</sup>. Datu berri honek aditzera ematen duenez, euskal irakurleagoa edo, euskarazko liburuaren erosleagoa behintzat, biziki igo dela esango genuke, kanpotar enpresak euskararen inbertitzera erakartzeko adina bederen. Horrenbestez, piztua da dagoeneko jokabide berri honen inguruko eztabaida, merkatu-borroka

eta gatazka ideologiko politikoa<sup>43</sup>.

Argitalpen gintzari erantsi beharreko beste datu bat haxe izango da: erakunde publiko, finantzari zein kulturek euskal liburuaren argitalpenean eginiko inbertsioa, 1989. urtean, besteak beste, liburugintza osoaren % 25 berauen argitalpenek hartzen dutelarik.

## 2.2. Aldizkariak eta prentsa

Aldizkarien atalean (astekari, hilabetekari, hamabostekari...) bi fenomeno izango dira bereziki azpimarratzekoak 70.eko hamarkadarako: gutxi edo gehiago iraungo duen aldizkari berri dexenteren sorrera batetik, eta aurreko urteetan sorturiko aldizkari zenbaiten sakoneko eraldaketa, bestetik. Azpimarratzekoak diogu fenomeno hauek adierazten baitigute, nolabait, euskal gizartearen irakurletarako sentsibilizazio berria: euskaraz eta Euskal Herriaz berri fresku, azkar, desberdin eta aldi berean sakonak irakurtzeko nahia eta aukera hain zuzen ere.

Aldizkariaren irakurlearen tipologia ezagutzearen garrantziaz oharturik, halere, azterketa sakon baten faltak (zenbateko tirada izan duten aldizkariak, zein motibazioekin irakurtzen den, nola, etab.) ekoizpen-alderdiaren azterketara mugatzera eramango gaitu. Dena den, Siadeco-k eginiko azterketan ematen diren zenbait datu baliagarri izango zaigu irakurketaren lehen hurbilpenerako: eremu geografiko konkretuei atxikiriko aldizkariak alde batera utzirik, hedapen zabalera begira eginiko aldizkariaren irakurleago



gehiena Gipuzkoan, Donostialdean bereziki, kokatzen dela ikusten da.

Koantitatiboki begiratuz, aurreko urteetan sorturikoei<sup>44</sup> gehitu beharko zaizkie 70.eko hamarkadan sortu berriak<sup>45</sup>. Koalatiboki emandako aldaketak izango du, alabaina, eraginik handiena euskararen erabilpen idatziaren normalizazio-prozesuan. Batetik, informazio-aldizkarien artean, informazio erlijioso edo lokala utzirik, informazio orokorreko astekari legeztatu bihurtzen dira, 1976. urtean, “Zeruko Argia” “Anaitasuna” eta “Goiz Argi”. Euskal prentsa funtzional baten alde eginiko apustu honetan, egiturazko arazoez gain, astekariaren esku egongo da kazetaritzako hizkuntza prestatzeko lana, garaiko egunkariak (la Voz de España, El Diario Vasco,...) baztertuta izango baitute euskara kazetaritzari dagokion eremu propiotik.

Prentsa funtzional berri honi Deia eta Egin (1977) egunkariaren eta Punto Y Hora, Garaia eta Berriak bezalako astekari elebidunen sorrera gehitu behar diogu; Euskal Herriko arazoak eta informazioa lantzeko sortuak, elebidunak (nahiz eta euskararen presentzia urria izan), planteamendu profesionalaz sortuak, euskal gizar-tearen kontzientzian eragin zuzena izango baitute. Ordurarte prentsa klandestinoak betetzen zituen helburretan bat betetzera etorriko dira: prentsa legalak ematen ez zuen informazioa eman, orain legalak izanik, eskuindarren esku zegoen prentsak ematen ez zuen informazioa ematea (Egin-ek batez ere.)

Euskararen erabilpen idatziaren eremuan beste aldaketa garrantzitsua aldizkari espezializatuen eskutik dator. Zientzia arloko Elhuyar aldizkariaren sorrerak eta ondorengo bilakaerak paper nagusia jokatuko du zientzia eta teknika arloko euskararen gaikuntzan. Kultur aldizkariaren artean, berriz, frankismoak eginiko eraso eta debekuen garaitik ateraz, 1977. urtean gorpuztuko dira aukera berriak, eta beraien artean Jakin; etenaldi askoren ondoren, 1977. urtean, argitaletxe izaterari utzi eta gai monografikodun aldizkari bihurtuz, indar berriz aterako dena eta euskara eta euskal kulturaren bilakaeraren azterketan erreferentzi puntu bihurtuko dena. Aipatzekoak dira, Jakin-ekin batera Zabal eta Zehatz aldizkariak, nahiz eta lehenengoak bezainbeste ez iraun, bere garaian euskal kulturaren munduan itzal handikoak<sup>46</sup>.

Diru-laguntzak lortzeko bideak irekiz joan ahala, 1975-80 urteen artean pisuzko 4 aldizkari bazeuden, 1980-88 bitartean 3 edo 4 aldiz ugarituko da kopurua<sup>47</sup>; Baionan, Iruñean, Bilbon, zein Donostian sortuak, informazio orokorreko zein espezializatuak, literatura, antzerkia, zientzia eta teknika, soziolinguistika, soziopolitika etabarreko gai desberdinak landuko dituztenak.

Geografi eremu zabalari begira eginiko aldizkariekin batera, kontutan hartu behar dugu herri zein eskualde mailan sorturiko aldizkari mordoa, Euskal Herriko eskualde gehienetan sortu baita iraupen motzeko edo luzeko aldizkariaren bat: Arrasate Press, Akatz

(Bermeo, 1990), Hots (Legazpi, 1982), Amilamia (Gasteiz, 1986), Plazara (Irun, 1985) har ditzakegu adibidetzat. Adibide gisa izendatzearekin azken batean adierazi nahi duguna, hauxe da: euskarazko idazketa eta irakurketaren erabilpen sozialaren gehikuntza kantitatez zein kalitatez.

Finean aipatu aldizkari guzti hauek osatuko dute, liburugintzarekin batera, helduen alfabetatzearen elikagairik oparo eta eskurakorrena. Zentzu honetan aipatzekoak dira izendatutakoaz gain zuzenean alfabetatze-euskalduntzeari begira sorturiko zenbait aldizkari: AIZU! (AEK), HABE (HABE), HABE-komik (HABE); hauen helburu nagusienerikoa, hain zuzen, euskara ikasten ari denaren irakurketari eta idazketari laguntza zuzena ematea izango delarik, informazio orokorra eskainiz eta berau ikaskuntza-maila bakoitzera egokituz.

Aldizkarien oparotasun erlatibo hau ez dugu, tamalez, egunkarietan somatu ere egingo. Erdara nagusi duen eguneroko prentsan eginiko zenbait saiakeraz gain ( Egin-ek ateratako 4 orrialdetako “Egunon” gehigarria, Deia-k euskarari eskainitako orrialdea, Diario Vasco-ren “Zabalik” eta beste zenbait egunkaritan noizean behin agerturiko zenbait iritzi-artikulu eta berri) nabarmenduko dira, hasiera batean behintzat, Egin-ek 1986an argitaraturiko “Hemen” aldizkaria, eta Deiak-ek argitaraturiko “Eguna” euskal egunkari bat izan zitekeenaren lehen saiakera modura. Dena den, batzuk zein besteak harturik, garbi ikusiko da euskarari ematen zaion tratamendu marginal eta bigarren

mailakoa: espazio gutxi, eta lantzen diren gaiak irakurlearengan sortarazten duten interesa eskasa, besteak beste.

Izanak izan, esan daiteke, halere, azken hamarkada honek eskaini diola euskal kulturari inoiz eduki ez duen eta alfabetakuntzaren fenomenoaren prozesuan berebiziko eragina izango duen elementu bat, Euskaldunon Egunkaria hain zuzen ere.

Euskarak bizi duen egoera diglosiko, bazterreratuaren adierazle nagusienetariko bat dugu, izan ere, euskal egunkari sendo eta zabal bat 1990. urterarte eduki ez izana eta behin sortu ondoren ere bizirauten duen egoeran egon behar izana. Herri-ekimenak sortu eta bultzatua (lan profesionala eginez, ekonomikoki lagunduz, jaialdiak antolatuz, etab), babes ofizialik gabe eta Eusko Jaurlaritzak jarritako oztopo eta eginiko erasoei aurre egin behar badie ere, egunetik egunera sendotuz ari den fenomeno dugula baieztatu genezake<sup>48</sup>.

Euskal alfabetatzearen prozesuarengan tamaina honetako fenomenoak duen eta izan dezakeen eragina, fenomeno berria den heinean ezin badugu ere oraïndik neurtu, halere, beronen sortze beretik zenbait ondorio ateratzeko moduan geundeke: Euskal Herriak, ez du jada euskara, ahozkoa zein idatzizkoa, noizean behingo akontzimendutzat hartzen, aldiz, euskaldunak egun osoa eta egunero euskaraz bizi nahi izatea errebindikatzen duela esan daiteke, egunero euskara entzun eta hitz eginez eta egunero euskaraz irakurriz.

Bestalde, euskaldunak informatuta egon nahi du, bere ingurunean gertatzen denaren berri freskoa eskuratu eta euskaraz eskuratu nahiko du. Eta azkenik, euskalduna gai da, maila batean, aipatu gogo edota helburu horiek betetzeko, hots, euskaraz normalki irakurtzeko eta noizean behin ere euskaraz idazteko, euskal egunkari bat sortu eta erabiltzeko.

Kultura moderno bateko hizkuntza normalizatu orok irakurketaren eta idazketaren gizarite-bilakaerarako duen oinarritzko tresnetariko bat da hamarkada honek eman duena. Etorkizunak neurtu beharko du emaniko aurrerapausu honen eraginaren zenbatekoa.

### 2.3. Euskal liburugintza

Ezinbesteko zaigu, bestalde, aldizkari zein argitaletxeen azterketa-rekin batera, euskal liburugintzari erreparos txoren bat ematea, baldin eta euskal alfabetatzearen prozesua bere osotasunean ezagutu nahi badugu, beronen azterketatik atera dezakegun informazioa ugaria baita: zertaz idazten den, zer irakur daitekeen, irakurleak ze gai-motarenganako joera duen, euskara idatziak zein kultur eremu hartzen duen etab. Gure oraingo lana ez bada ere liburuaren, idazlearen, zein irakurlearen azterketa sakona egitea, euskal alfabetatzearen hedadura eta edukiaren indize bat agertzen duen heinean azaldu nahi genuke epealdi honetako euskal liburugintzaren zenbait ezaugarri.

J.M.Torrealdai jaunak eginiko azterketan oinarrituz<sup>49</sup> hauek lirateke oraingo honetan nabarmendu nahi

genituzkeen fenomenoak: liburu-kopuruaren ugalketa, euskaraz jorratuturiko gaien zabalpena, literatura- eta irakaskuntza-motako liburuen inguruan emaniko bipolarizazioa, euskara batuaren errotze-prozesua etab.

70.eko hamarkadan kokatuz, liburu-kopuruari dagokionez 1975. urtea izango da, 1968. urtearen ondoren, gorakada handiena ikusiko duen urtea. Ordurarte urtean 100 liburu argitaratzerira iristen ez bazen ere, oraingo honetan gaudituko da kopuru hau, igoerarako joera hau 1980. urteraino nola hala mantenduko delarik. Bestelako arazoa da liburu hauek zenbat jendek irakurtzen dituen jakitea. Erostea eta irakurtzearen artean legokeen desberdintasuna kontuan izanik, tirada zenbatekoa izan den ezagutzeak nolabaiteko aztarnaren bat eman diezaguke. Zentzu honetan, Siadeco-k (1976) eginiko lanak eskaintzen dizkigun datuen arabera, oso seguruak ez izan arren, euskara ikasteko metodo-liburuek izango lukete tiradarik handiena: Cinsa-k argitaraturiko “Euskal Metodoa”k 6.000 aleko argitalpena izan du, “Alfabetatzen” liburua, eginiko edizio guztiak kontutan hartuz, 50.000ren bat ale etab.; poltsiko-liburuek eta tesi-liburuek 1.200/1.500 aleko tiradak; haur eta gazteentzako liburuak 3.000ren bat ale (nahiz zenbait kasutan 4.000ra iritsi). Euskal irakurle potentzialaren muga koantitatiboaz jabetzeko orientabide gisa balio dezaketen datuak genituzke berauek.

Euskaraz lantzen diren gaien alorrean, halaber, zabaltze-joera nabari da batetik: gero eta gai gehiago lantzen

da euskaraz nahiz eta liburu kopuru gutxi argitaratu sail askotan; eta, bestetik, aldiz, gai zehatz batzuen inguruan bipolarizatzen hasten da produkzio gehiena: 1975. urtetik aurrera irakaskuntzari, haur eta gaztekoen literaturari, eta euskararen ikaskuntzari begira eginiko liburuak nagusituz joango dira liburu-ekoizpenean (liburu funtzionalak, kultur premiei atxikiturikoak). Helduen literaturaren nagusitasuna, halere, mantenduko da (1977 eta 1980. urteetan ezik) ia urte guztietan. Sail hauek, bestalde, hamarkada osoan zehar, ekoizpen osoaren % 70 baino gehiago hartuko dute, bizitza publikoari, administrazioari, bizitza ofizialari eta hainbat gairi dagozkion eremuak ukitu gabe geratuko direlarik. Zentzu honetan, aipa dezagun, beste batzuen artean, UEU-k egindako lana, 1977tik aurrera argitaratzen dituen zenbait idazlari esker lortzen baita euskarak, ordurarte sarbiderik ez zuen zientzi gaietan, nolabaiteko presentzia edukitzea. Horra, Torrealdaiak berak esango duen bezala, euskararen egoera diglosiakoaren islada.

80.eko hamarkadari dagokionez, liburu-kopuruaren bilakaerari so egiten badiogu bi fenomeno azpimarra dezakegu: 1980. eta 1981. urtean ematen den ekoizpenaren beherakada eta ondorengo igoera.

Esan dezakegu 200 inguruko liburu-ekoizpenaren egonaldi edo krisiaren ondoren (1979. urtean 242 liburu argitaratu zirenetik 200 liburura jaitsi da 1981. urtean) euskal liburgintzak goranzko martxa itzela hartua duela, gutxi gora behera bi urtetik

behin, argitalpen-kopurua 100 liburutant handiagotzen delarik.

Baina hamarkadaren hasieran bada kopuruaren beheraldiaz gain, aurrerantzean nabarmenduz joango den beste zenbait fenomeno. Batetik, orotariko gai-saila (haurren eta gazteei zuzenduriko literatura bereziki) nagusituko da, ekoizpen osoaren % 25 bereganatuz (1980. urtean ere lehenengo postua eskuratu zuen % 23arekin). Joera hau, 1984., 1985. eta 1986. urteetan ezik, iraunkorra izango da, eta are gehiago, ekoizpen osoaren gero eta portzentaia handiagoa bereganatuz joango da (1990. urtean % 33'5). Sail honekiko lehian, bestalde, irakaskuntza-saila eta helduen literatur saila izango ditugu.

Irakaskuntzara espreski zuzenduriko liburgintza hasiera batean sailkapenaren laugarren postuan azaltzen bada ere, bere ekoizpenaren portzentaia %15 - %25 inguruan ibiliko da hamarkada osoan, bukaeraldera haurren eta gazteen literaturarekin batera ekoizpen osoaren erdia baino gehiago bereganatuko duelarik.

Helduen literatur sailak, aldiz, indarra galduko du. Nahiz eta 1984-85-86. urteetan sail nagusi gisa azaldu, aurreko hamarkadako datuekin konparatuz (1978.ean % 30, 1979.ean % 34'5) ez da ekoizpen osoaren % 30era iritsiko.

Hauekin batera ere, aipatzekoa da euskararen ikaskuntzarako materialaren ekoizpenaren fenomenoak, 1977. urtean gertatu zen eran (osoaren %23,

sailik argitaratuena izanik), 1981. urtean bereganatuko baitu galduriko tokia (ekoizpen osoaren % 21). Ez da, halere, horrelako portzentaiarik errepikatuko, izan ere, gero eta gramatika eta ikasliburu gutxiago argitaratuko baita.

Haur- eta gazte-literatura, helduen literatura, irakaskuntza edota euskara sailak izan badira ere hemen komentatu izan ditugunak, ez du honek esan nahi beste gai-sailak ez direnik euskaraz landuko. Baina nabarmendu nahi izan duguna honako hau izan da: euskal liburugintzak hartu duen polarizaziorako joera.

Aipaturiko lehen sail hauek 70.eko hamarkadan ekoizpen osoaren % 70 inguru bereganatzen bazuten, 80.ean zehar, 1977. urteko % 76ko portzentaiatik, % 80tik gorako ekoizpena izango dute beren eskutan. Are gehiago, irakaskuntza (Orotariko sailak barne, 1990. urtean % 50tik gorako ekoizpena bereganatuko dute) zein helduen literatur arloa (narrazioa bereziki) bihurtuko dira euskal liburugintzaren oinarri eta babes (1990. urtean sail hauetaz aparte oso gutxi idatzi da, 100 bat liburu). Torrealdaik berak esango duen bezala “Ez da dudarik euskal liburugintza sustatu, mugitu, indartu eta posible egin, irakaskuntzak egiten duela.”<sup>50</sup>.

Bestalde, argitaletxeen jokabidearen nondik norakoak ezagutzea ahalbideratzen diguten heinean, itzulpengintza eta berrargitalpengintza elementu argigarriak suertatzen zaizkigu. Honela esan, klasikoen itzulpenari eta berrargitalpenari ekiten

bazaio ere (1976. urtean bereziki nabarmentzen da honen pisua), gero eta nabarmenago egingo dela irakaskuntza-liburu eta euskara ikasteko metodo eta gramatika-liburuak itzuli eta berrargitaratzeko joera; argitaletxeek ere, etorkizunerako kultur proiektuetan oinarrituriko lana utzi eta momentuko kultur premia larriei aurre egiteari ekingo baitiote.

Joera-aldaketa honetan, interesgarria da 1977. urtearen komentaketari tarte bat uztea, bertan azaltzen diren datuek momentuan bizirik egoera berriaren adierazle diren mailan. Batetik, euskara ikasteko metodo, gramatika, hiztegi, etabarren edizioaren ugalketa nabarmentzen da. Aztergai ditugun 20 urteotan errepikatuko ez den fenomeno dugu produzioaren hain portzentaia handia bereganatu izana. Honen arrazoia garbia da: Euskal alfabetatze-euskalduntze mugimendua indartzen den une honetan ikasle-ugalketak dituen premiei erantzutea. Euskalduntze-Alfabetatzeak sorturiko beharrei erantzun nahi den bezala, aurrerantzean ere honekin batera ikastoletatik sorturiko gero eta ikasle gehiagoren eskaerak hartuko du bereziki argitaletxeen arreta, merkatu-legeetara eta dibulgazio lanetara makurtze hau, bestalde, aski kritikatu edo salatua izango delarik bere momentuan zein ondorengo urteetan<sup>51</sup>.

Alfabetatze-Euskalduntze mugimenduaren indarberritzeak, aldizkari eta egunkari berrien sorrerak eta erdarazko liburu sozio-politikoaren boom-ak, beste gertakari kultural eta politikoekin batera, euskal idazleen

arreta bereganatuko dute hein handi batean, iker-lanaren kaltetan.

70.eko hamarkadan, bestalde, azpimarratu behar den beste fenomenoak euskara batuaren errotze-prozesua da. Gero eta portzentaia handiagoan argitaratuko eta idatziko dira liburuak euskara batuan (1979. urtean adb. produkzio osoaren % 79,5 batuan idatzia egongo da, eta lehen ekoizpenari dagokionean, % 88. Euskalkian idatziriko liburuen artean, gipuzkera azaltzen da nagusi, bizkaieraz ia ezer idatzi ez delarik)<sup>52</sup>.

Torrealdai jaunak 80.eko hamarkadarako emandako datuen arabera, bi fenomenoren joera nagusiak lirateke aipatzekoak lehenik: sorkuntza berriarena eta itzulpengintzarena. Euskarazko sorketa-lanari gagozkiolarik, hasierako beheraldia gaingidurik (1980.ean % 50, 1981.ean % 48,5) goranzko joera nabarmenki azaltzen da 1987. urtean beheraldira jotzen hasten den arte. Berriki sorturiko ekoizpena ez da, bestalde, berdin sentituko gaisail guztietan: haur eta gazteen literatura noizean behin tartekatuz, irakaskuntza eta helduen literatura sailak azalduko zaizkigu, hain zuzen, idazkintza berriaren gune nagusi.

Euskaraz sortzen da jakina, baina azken urteetako datuei so egiten badiegu argi ikus daiteke nola sorkuntza berriak duen portzentaia adina bereganatzen duten itzulpengintzak eta berrargitalpengintzak elkarrekin. Berrargitaratzeko joera gutxituz doala esan badaiteke ere (portzentaia handieneko garaietan

irakaskuntza-liburu eta euskara ikasteko liburuetan ematen da bereziki), itzulpengintzari dagokionez aurkako joera ematen dela ikusiko genuke, gero eta indar handiago hartzen ari den joera dugu hau. Ildo honetatik, aipatzekoa da ere zein sailetan hartzen duen itzulpengintzak pisurik handiena: irakaskuntzarako testugintzan batetik (1988ean, % 20 itzulia), baina bereziki haur eta gazteentzako literaturan (1978. urtean % 78 itzulia); azken hau itzulpenetik bizi dela esatera ausartuko ginatke.

Aipatu datuekin bistan da euskal liburugintzarako merkatua egon badagoela, ikastoletako goi-mailetan eta alfabetatze-euskalduntzekotan kontzentratua hein handi batean, eskaria badela eta zentzu horretan euskarazko irakurketaren gizarteratzean garapen nabarmena eman dela, euskal irakurleagoa heziz eta haziz doala (kalitate mailan jauzi koalitati-boa eman dela esan daiteke aukera gehiago eskaintzen den heinean, ideologikoki zein liburu-mota aldetik...), joan den aurreko hamarkadatik hona.

Bestelakotzat har dezakegu, alabaina, euskarazko idazketaren fenomenoak, hots, argitaratzera iristen den idazkintzarena. Kasu honetan, euskal idazleak tradizioz izan duen, eta behar izan duen, borondate on, ofizio eta euskararekiko militantzia funtsezko aldagai bilakatzen zaigu, oraindik orain, euskal liburuaren idazkintza eta argitalpengintzan.

Ildo honetatik, halere, aipatzekoak dira administrazio publikotik euskal

liburugintzari eskaini izan zaizkion laguntzak<sup>53</sup>, idazle zein argitaletxe-tzeentzako subentzio, lehiaketak etab, gerraz geroztik eman diren lehenetarikoko saiakerak diren neurrian, eta, ondorioz, euskararekiko eta euskal kulturarekiko nolabaiteko ardura eta bultzada adierazten duten heinean.

Diru-laguntzen banaketan ere, irakaskuntza, haur eta gazteentzako literatura, eta nolabait helduen literatura sailak izango dira nabarmenki bultzatuko direnak. Era berean, sorkuntza berria bultzatzeaz gain, behin baino gehiagotan azalduko dira itzulpengintza indartzera eramango duten erabakiak. Bestalde, liburugin-tzaren sustapena indartuko bada ere, nabarmenak izango dira plangintza baten beharra aldarrikatuko duten oihuak, euskal liburugintza bere osotasunean hartu eta plangintza eta programa orokor eta sendo baten eskaera luzatuko dutenak hain zuzen.

---

### **3. Hizkuntz normalkuntzaren bidetik**

---

70.eko hamarkadan zehar Euskaltzaindiak bere batzar desberdinetan hartutako helburuek alfabetatze-prozesurako erabateko eragina izango dute, idazkera, grafia edo eta euskara batua arautzeari buruzko helburuek zein titulu eta agiri emateari buruzkoek. Iker Saila eta Jagon Saila izanik Euskaltzaindiak bere helburu anitzak betetzearren sorturiko antolaketa-bideak, hauek, eta bereziki Alfabetatze Batzordea, izango dira, zuzen ala zeharka, euskal alfabetatzearen prozesuan eta mugimenduan eragingo

dutenak. Zehazki, garrantzitsua deritzogu Euskaltzaindiak 1972ko Ekainaren 30ean Alfabetatze Batzordeari buruz hartutako erabakiari, bertan Alfabetatze Batzorderako oinarri arauak ezarriko baitira<sup>54</sup>. Oinarri hauen garrantzia bi mailatakoa dela esan dezakegu: sortzen direneko egoeraren zeharkako deskribatzaile diren mailan eta Alfabetatzeaz ematen duten kontzeptualizazio eta beronen kontrolaren mailan.

Arau hauek sortzen direneko testuinguruari dagokionez, alfabetatze-lanetan dihardutenengan alfabetatzearekiko kontzeptzio desberdinak soma ditzakegu zeharka (zer gai landu ikastaroetan, nola...), ustezko jarrera desberdinek bultzatuko luketelarik Euskaltzaindia Alfabetatzearekiko jarrera argi eta garbi bat azaldu eta ezartzera: alfabetatze literarioarena alegia. Nabarmenki mozten da une honetan, teoriarik behintzat, beste ikuspegi baterako bidea. Kontzeptzioaz gain ere, garbi uzten da zer egin behar den alfabetatze-ikastaroa muntatu eta aurrera eramateko: oinarriak bete.

Era berean, eta zeharka bada ere, egoera nahasia ikus daiteke irakaslearekiko: irakasle ugari kontrolik gabe, eta hauek kontrolatu beharra. Nahasketa-egoeratik irteteko oraingo pausoa, beraz, ideiak argitzea eta prozesuaren kontrolerako lehen pausuak finkatzea izango da: gidaritza, Bulego eta Irakasle Sailen bidez eraman nahiko da. Azken Sail honi, Euskaltzaindiarekiko autonomoago izan arren, arautegiko zenbait puntutan ezarriko zaizkio, halaber, kontrolerako

bideak: dossier-ak aurkeztu, karneta eduki, galdeketak bete beharra, etab.

Esan behar dugu, halere, erabaki hauen azpian soma daitezkeen alfabetatzearen kontzepzio desberdinak, eta antolatzeke era desberdinak ez direla amaituko arau hauek ezartzearekin, aldiz, egundaino bizirik iraungo duten joerak izango dira, aurrerantzean ikusi ahal izango denez.

Bada hauetaz gain, alabaina, epealdi honetan pisu handia hartuz joango den beste elementu bat eta alfabetatzean zein euskararen gizarteratze eta finkapenean garrantzia hartuko duena, hots: euskararen titulua.

Euskaltzaindia, bere helburuei jarraikiz eta bere Gidaritza Sailaren bitartez, alfabetatze-irakasleentzako azterketak egiten hasiko da Euskal Irakasle Titulua zabalduko delarik, berau eskuratzea aurrerantzean irakasle errekonozitua izateko beharrezko baldintza bihurtuz. 1972an zehazten da, halaber, titulua lortu ahal izateko irakaslegaiak jakin behar duena, 3 maila bereiztuko direlarik: lehenengo maila, bigarren maila eta gorengo maila. Azken hau euskara irakasten bizimodua ateratzen duen irakasleari zuzendua <sup>55</sup>.

Euskal Irakaslearen Titulua sortuko da momentuan dagoen beharrari erantzuteko bereziki: Alfabetatze eta Euskalduntze ikastaroetarako irakaslego-beharra, eskoletan ere euskara sartu beharra; ordurarte irakasleak izandako amateurismo eta borondate hutsa gainditu nahi delarik prestaketa hobea eskainiz. Garaiko beharrei

erantzutearren zenbait neurri hartzeak zilegizko badirudi ere, gisa honetako erabakiak, bestalde, hain zilegizko edo onargarriztat hartuko ez diren ondorioak ekarriko ditu: euskara irakatsi edo euskaraz irakasten duten irakasleenganako presioa areagotzea eta ikasleek beren euskara-ikaskuntza soilik delako gaitasun-agiria lortzera bideratzea.

### **3.1. Hizkuntza estandar baten beharra**

Urteetako errebindikazioa (euskara estandarizatu baten beharra), berpizten da, gerraosteko isilaldiaren ondoren, 60.eko hamarkada inguruan (Krutwig-en 1950eko saiakerak; 64eko Baionako Biltzarra) eta, batasunaren ideiak indarra hartzeaz gain onartuko da, nola hala, nork arduratu behar duen hizkuntzaren estandarizatze horretaz: Euskaltzaindiak.

Ildo honetatik, euskararen batasunerako bidea markatuko duten gunerik garrantzitsuenetarikoak izango dira Euskaltzaindiaren 1968ko Arantzazuko Biltzarra eta 1978 Bergarako Biltzarra, batean zein bestean hartutako erabakiak edo eta oinarriak erabatekoak izango direlarik, irizpide nagusien finkapen gisa. Tarteko eta ondorengo urteetan oinarriak xehetu eta atal zehatzak landuko dira, ahal denetan, zenbait erabaki hartu eta igorritz.

Hartutako erabakien artean, izan ere, bi mota nagusi bereiz dezakegu, garrantzi berekoak biak:

Hizkuntz eredutzat, batasunerako



oinarri, zein euskara-mota edo euskalki hartu behar den.

Hizkuntz atal desberdinentzako arauak: ortografia (“H”), deklinabidea, aditza, etab.

1968-78 hamarkada esperimentu gisa hartuko du Euskaltzaindiak euskara batua, eta honekin batera “H” hizkia, euskal gizartean errotzen denentz ikusteko; bitarte horretan poliki-poliki xehetuz joango direlarik 1968ko oinarritzko irizpideak.

Zentzu honetan, 1968an eskainitako euskara batuak izaniko harrera aztertu ahal izateko burututako zenbait inkesta edo galdetegitatiek ateratako datuen arabera: idazleen artean % 30ak idazten du euskalkian, % 61,3ak euskara batuan. Oraindik 3tik batek berea duen euskalkiari eusten diola ikusten da (nahi duelako edo batua ikasteko aukerarik izan ez duelako)<sup>56</sup>. Batua erabiltzearen arrazoi nagusienetarikoa, aldiz, “Hizkuntza bakar baten beharra” edota “kultur tresna” izatea direlarik. Hauetarik gehienak, bestalde, batuan lehen urratsak Arantzazuko Biltzarreko urtean hasi ziren ematen. Idazleak arau baten beharrean zeuden eta Euskaltzaindiak emanak onartu zituzten.

Irakasleen artean antzerako datuak azalduko dira: % 7,9ak ez du erabiltzen batua irakaskuntzan, % 62,3ak erabiltzen du batua globalki, % 90,9ak batean edo bestean erabiltzen duela dio<sup>57</sup>. Oraingo honetan, batuaren behararen arrazoi nagusitzat “euskararen iraupen-arrazoiak” edota “kultura modernorako tresna bihurtzea” hartuko

dira.

Esperimentatze-fasearen amaiera, edo beste modu batean esanda, hizkuntzaren estandarizazio eta kodifikazioari zuzenduriko bigarren erabaki-hartze nagusia 1978. urteko Biltzarra dugu. Bertan, egindako azterketetan oinarrituz, Arantzazun eskainitako batasun-asmoa eta arauak izandako onarpen eta eragina ikusirik, bide beretik jarraituz, euskararen batasun-lanak aztertu, sakondu eta aitzinatzea hartzen du helburu Euskaltzaindiak. Dagozkien azterketa-batzordeen lanetatik abiatuz, H letrari buruzko, bustidurei buruzko, deklinabide eta erakusleei buruzko erabakiak hartzen dira<sup>58</sup>.

### **3.2. Euskararen modernotzea: Alfabetatze teknikoak**

Azken hogeitamar urteetan zehar, eta 80.eko hamarkadan bereziki, euskararen normalkuntza lortzea izan du euskal gizarteak helbururik nagusienetarikoa, hots, euskararen erabilpenaren berreskurapen osoa: pertsonala, soziala, kulturala eta lurraldetasunezkoa. Ildo honetatik, euskarak bizi duen ordezkapen-prozesua gainditu nahian, euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzera zuzenduko dira herri-erakunde eta erakunde ofizial desberdinen ahalegiak Euskal Herriko sei herrialdeetan.

Euskararen modernotze-prozesu honetan, eta ondorioz euskararen normalkuntzan, euskal alfabetatze teknikoan eginiko lana aurrerapausotzat hartuko dugu, bertan UZEI, Elhuyar eta UEU bezalako erakundeen

lana azpimarratuz.

Bi maila desberdinetan kokatuko genuke goian aipaturiko hiru taldeen ekarpen nagusia. Batetik, euskararen gaikuntza linguistikoa genuke, hau da, euskara ezagutza-arlo desberdinei aurre egiteko prestatzea eta, honekin batera, euskaldunak zeregin honetarako iaiotzea. Eremu honetan kokatuko genituzke UZEI erakundea eta ELHUYAR taldearen ekarpenak bereziki; jakintza-arlo anitzen oinarrizko lanketa eta prestaketari dagokionean lehenengoaren kasuan (hiztegitintza, ikastaroak...), eta zientzia zehatzen eta teknikoaren alorra bigarrenarenean.

UZEI, Jakin taldearen eskutik, 1977. urtean sortu zen. Talde tekniko eta profesional honek, bertako disziplina desberdinak koordinatu eta gidatuko dituen talde-lana ardatz izanik (500 lagunetik gora ihardun du UZEIren programetan), oinarrizko lexikogintza berezituari eta hiztegin-gintzari eustearekin batera, ikasliburugintzari ere ekingo dio erdi-mailako irakaskuntzari eta, batez ere, unibertsitateko materialgintza idatziari begira: UBI eta BBBrako Filosofia, unibertsitate-mailarako Psikologia, Ekonomia, etab.

Era berean, eratuz eta handituz joan da terminologia tekniko berezituaren bankua, 15.000 datu inguruko terminologi bankua sortuz jada 1985. urtean<sup>59</sup> eta honekin batera, kontsultategia, ikastaro bereziak, alfabetatze teknikoak, itzulpen teknikoak etabarrereko zerbitzuak eskainiko dituelarik.

Argitaraturiko testu-liburuak,

hiztegiak, euskal lexikologia eta lexikografiari buruzko hainbat lan, datu-bankuak eta, beste eginkizunen artean ere, Diputazio eta udaletxeetako itzultzaileekin batera administrazioko euskararen lanketan eginiko ihardunek zentru nagusi bihurtu dute UZEI euskararen modernizazioan eta euskararen alfabetatze teknikoan bereziki.

Euskarazko liburuetatik atera eta bildutako 20 mila termino teknikotik gora dituen datu-kutxa, ELHUYAR aldizkaria, testugintza berezia etab. dira ELHUYAR taldeak buruturiko zenbait lan aipagarri, zientzia zehatze-tako alorrean zegoen hutsunearen betetzea berari zor zaiolarik gehien bat<sup>60</sup>.

Alfabetatze teknikoaren alorrean, itzulpengintzan bereziki diharduen Itzultzaile Eskola genuke, bestalde, UZEI eta ELHUYAR taldeek eginiko lanarekin batera. Hain zuzen, 1980. urtean Euskaltzaindiaren babespean sortu eta 1982. urtetik aurrera L.H. 2 mailaren barruan Arautu gabeko Irakas-Zentru bihurturiko Eskola honen helburu nagusia gero eta handiago egiten ari den itzulpen-eskaerari gutxienezko gaitasun batez erantzun ahal izateko mailako itzultzaileak prestatzea izango da<sup>61</sup>. IRALE, UZEI eta ELHUYARekiko lankidetzan ekingo dio bere irakaskuntza-zereginari, azken bi hauekin batera ere, 1984. urtetik aurrera "Senex" itzulpen eta terminologiazko aldizkaria argitaratuko duelarik.

Bestetik, oinarrizko aurrelan honen erabilpen eta hedapenaren eremua

genuke aztergai. Eta hemen kokatuko genuke UEUren ekarpen nagusiener-tariko, berau izango baita euskal unibertsitatearen biltoki zabalena, eztabaidarako ideien eta ezagumen-duen trukerako eta jendeak elkar ezagutzeko gune garrantzitsua<sup>62</sup> testuinguru honetan bereziki, euskara helburu baino erreminta izanik, errotuko delarik UZEI talde teknikoak edota ELHUYAR taldeak eginiko lana.

Zentzu honetan kontutan hartze-koak dira urte osoko lanaren ondorio gisa, Iruñean egiten dituen uda ikastaroak (23 sail desberdin, Zientzia, Teknika, Filosofia, Artea etab. alorretan), bertaratzen den ikaslegoa-rentzat<sup>63</sup>, besteak beste, murgiltze-metodologiarako aukera egokia izan delarik, erabateko euskal giroa eskaintzen duen heinean<sup>64</sup>.

Tradiziozko udako ikastaroez gain, bestalde, unibertsitate-mailako liburu-gintzaren hutsunea betetzen saiatu da UEU 1980. urtetik aurrera batez ere, euskal unibertsitatearen premia gorriari erantzuteko eta euskara bera zientzietako alor guztietan gaitzearren, euskal liburutegiari hasiera eman zaiolarik<sup>65</sup>. Era berean, unibertsitateko irakaskuntza euskaraz eman eta horretarako ikasleak gaitu eta euskara bera gaitzea izanik asmorik nagusiener-takoa, euskararen arazoan unibertsitate ofizialen akuilu izan eta euskal unibertsitatearen biltoki dugu UEU<sup>66</sup>.

---

#### **4. Euskara eta euskal Kulturaren plangintzaren beharra: EKB**

---

70.eko hamarkadan zehar abiatu-

ko euskararen eta euskal kulturaren ezagutza eta erabileraren hedapena eta zabalkunde-garaiaren bilakaera gisa euskararen plangintzaren beharra eta berau bideratu ahal izateko eginiko saiakera desberdinak har genitzake 80.eko hamarkadako ezaugarritzat.

1975. urtean Siadecok eginiko lehen lanetan hizkuntz batasunarekin batera hizkuntzaren normalizatze politiko eta sozialerako plangintzaren beharra adierazten zenetik etengabeko eskabidea bilakatu izan da berau aginte politikoaren aurrean. Honela, herri-mugimendu edo talde herritarren ekimenek, hemen ere, garrantzizko zeregina eta papera beteko dute euskararekiko plangintzarik eza erakutsiko duen aginte politikoaren kitzikatzaille diren heinean, batetik, eta euskararen normalkuntzaz aginte politikoak jarraitzen duen ikuspegia-rengandik desberdintzen duen oinarri teoriko eta sozio-politiko propioa agertzen duten heinean.

Zentzu honetan, eta herri- edo bailara-mailan sortu eta helburu beretsuak dituzten taldeak (AED, Berreuskalduntze-taldeak etab) gu-txietsi gabe, Euskal Herrian Euskaraz (EHE) eta Euskarazko Kulturaren Batzarrea (EKB) herri-erakundeak aipatuko ditugu bereziki, hauek izan baitira, Euskal Herri osoa lan-eremu-tzat harturik, beste haibeste talde sortarazten edota biltzen nolabait lagundu izan dutenak.

EHE 1979. urtean sortzen da asoziazio ireki gisa, helburu nagusizat euskararen defentsarako herriaren protagonismoa bizkortu eta eragiletza

antolatzea izango duelarik. Euskararen borroka funtsean arazo politikoa denaren ustetan, irtenbidea, bakarrik ez bada ere, neurri handi batean politikoa dela ikusiko dute, eta honela Euskal Herriko alderdietan eta administrazio publikoetan eragin izan nahiko dute, beren eguneroko politikan lehen mailako nazio-arazotzat har dezaten euskararena (...) eta, bide batez, Euskal Herriak euskalduna ala erdalduna izan behar duen behingoz definitzea eta horren arabera borrokatzen hastea eskatuko dutelarik<sup>67</sup>.

Zentzu honetan, herri-presioa eta antolaketa ardatz izanik, Plangintza Orokorren beharra izango da, besteren artean (komunikabideak euskaraz, udaletan euskaraz, etab), aurrera eramango duten errebindikazioetariko bat.

Bestalde ordea, aipatzekoa da elkarte honek, eginiko ekintza praktikoaren artean, leku publikoetako seinale edo informazio-txartelak euskalduntzearen burutu lana<sup>68</sup>. Erdara hutsean eginiko inskripzioak estaliz, edo eta euskarazko ordezkoa ipiniz, kontzientziatu dute herria honen beharraz eta duen eskubideaz, eta presionatu ere euskarak debekaturik izan duen espazio eta informazio publiko arrunta, egunerokoa, beregana dezan aginte politikoak beharrezko neurriak har ditzan.

Euskararen normalkuntzarako aurrerapausu garrantzitsua izanik emanikoa, nabarmentzekoa da, aldi berean eta bereziki, euskararen alfabetakuntzarentzat gertaera honek suposatu duen aurrerakada. Gizarte-mailan batetik, testu luze zein ma-

mitsuetatik at gizarte-informaziorako funtzio arruntak betetzera igarotzen den heinean, euskara idatziaren erabilpenean emaniko hedakuntza bazterrezina genuke. Eta, bestetik, gizabanakoaren mailan, egunero kalean zehar erdaraz ikusiriko seinale eta informazio-txartel iraunkor zein aldibatekoak euskaraz ere egon daitekeenaz eta egon behar dutenaz ohartaraztearekin batera, euskararen irakurketa funtzionalerako gaikuntza bidean geundeke.

1983. urteko Martxoaren 12an egin zuen UNEDen (Bergara) bere aurkezpenean Euskarazko Kulturaren Batzarreak. Bertan, euskal kulturgintzako talde, elkarte eta erakunde herritarren “konfederazio” gisa eraturik, eta “Gizartearen jaberazpena”, “Ekintza bateratua”, “Eskakizunak” eta “Plangintza Orokorra” ardatzen inguruan markatuz euren eginkizuna, “Euskararen defentsa, berreskurapen eta normalkuntza eta euskal kulturaren eragintza”<sup>69</sup> hartu zuten azken helburu gisa<sup>70</sup>.

Goian aipaturiko lau ardatzen inguruan, beraz, koka genezake EKBren ekarpena hamarkada honetan zehar. Gizarte-jaberazpenaren arloan, lehenik eta behin, aipatzekoak dira egunkari zein aldizkarietan idatziriko hainbat artikulurekin batera, Hegoaldeko lau hiriburuetan eginiko nazioarteko topaketak, europarlamentariei luzaturiko eskakizunak, Publizitate eta Hizkuntza Minorizatuei buruzko Ihardunaldiak, “BAT” soziolinguistikako aldizkaria, “Hizgabe”. Euskararen defentsarako eta berreskurapenerako eginiko ekintza bateratuen artean,

bestalde, Euskararen Eguna, Euskal Telebista euskaldunaren aldeko sinaduren bilketa, Bateginik kanpaina, eta besteren artean, 1990. urtean buruturiko Euskalduntze Alfabetagintzaren I. Ihardunaldiak.

Azken kasu hau, Euskalduntze-Alfabetagintzaren I. Ihardunaldiena alegia, 25 urtetan esparru guztietako partaideak biltzen direneko lehen aldian izanik, historikotzat hartua izango den gunea dugu. Arlo zehatz honi dagokion problematikaz eginiko azterketatik, sailean dihardutenen sakabanaketa, motibazioaren ahultzea (matrikula-kopuruaren beherakada), Alfabetagintza-alorrean dagoen hutsune nabaria eta euskara ikasteko eskubideak ziurtatzeko baldintzarik eza agertuko dira, besteak beste, gairik kezkarrien gisa.

Egoera horretara eramaniko fakto-

reen artean berriz, hauxe azpimarratuko da: lan planifikatu eta iraunkor baten falta, koordinaziorik eza, euskalgintzako gainerako sailekiko harreman-falta, instituzio publikoek ezarri duten legeriaren desegokitasuna, euskalduntze-alfabetatzeak eskatzen dituen bitartekoak ezarri ez izana, euskalduntze-alfabetatze mugimenduarekiko elkarlanerako aukerarik ez eskainia<sup>71</sup>.

Horiek horrela, eta lehen topagune honen ondorioz, inizatiba soziala zein instituzionalaren garrantzia azpimarratzearekin batera, sail berean dihardutenen arteko elkarlana funtsezkotzat hartuko da. Bestalde, premiazkoa ikusiko da, esandakoarekin batera, euskararen plangintza orokor baten gainean eraikiriko euskalduntze-alfabetatzearen plangintza, horretarako behar-beharrezkotzat joko delarik euskalduntze-alfabetatze sistemaren berrantolamendua<sup>72</sup>.

---

## Oharrak

---

- 1 SIADECO (1976): *Estudio socio-lingüístico del euskara*. XI. tomoa. “Análisis de la radiodifusión y producción discográfica en el País Vasco”, III. Bol.: “La recuperación del euskara. Proceso de normalización lingüística”.
- 2 Ibidem., 47. or.
- 3 Ibidem., 48. or.
- 4 Ibidem., 47.or.
- 5 Ibidem.
- 6 Zehaztasun gehiagotarako ikus SIADECOren azterketan azaltzen diren zuzendariei eginiko inkestaren ondorioak.
- 7 EKB (1985): “Euskararen Plangintzarako Oinarriak” in *JAKIN* 34, 111-112 or.
- 8 1982ko maiatzaren 20ko 5/1982 legeak sortzen duen “Euskal Irrati-Telebista” herri-erakundearen bitartez burutuko dira Euskadi Irratia zein Euskal Telebista.
- 9 ZALAKAIN, J.M. (1982): “Komunikabidez komunikabide” in *JAKIN* 22, 63. or.
- 10 Hiruren artean euskarak hartzen duen lekua programazio osoaren % 1,1 eta % 3,5 bitartean kokatzen da.
- 11 IRIONDO, L. (1977): “Euskal kanta berriari hurbilketa kritikoa” in *JAKIN* 4, 29-44 or.
- 12 LETE, X. (1977): “Kanta berria, erresistentzi abestia”, in *JAKIN* 4, 19. or.
- 13 IRIONDO, L. op. cit.
- 14 IZTUETA, P.: “Euskararen adierazpen soziala gerra ondoan (1937-1984), in INTXAUSTI, J. (1985): *Euskal Herria, errealitate eta egitasmo*. II tomoa, 399. or.
- 15 IRIONDO, L. op. cit.
- 16 LETE, X., op. cit., 16-28 or.
- 17 ZUBIZARRETA, I. (1977): “Kanta berria bide gurutzean”, in *JAKIN* 4.
- 18 LETE, X., op. cit., 25.or.
- 19 BELOKI, J.R. (1977): “Kanta berriaren ingurumaria”, in *JAKIN* 4, 55.or.
- 20 SIADECO, op. cit.
- 21 Zine-ekoizleek balioaren %25a jasotzen dute Jaurlaritzatik.
- 22 1985eko maiatzaren 13ko agindua, zinemagintzaren ekoizpenari diru-laguntzak ematea araupetuz; bertan, beste baldinta batzuen artean, filmaren kopia bat euskaraz ematea derrigorrezkoa delarik.
- 23 EKB, op. cit., 106-108 or.
- 24 LEKUONA, J.M.: *JAKIN* 44. zenbakian eginiko elkarrizketan. 1987, 21. or.
- 25 Ibidem. 22-23 or.
- 26 DORRONSORO, IN *JAKIN* 44, 1987, elkarrizketa, 22. or.
- 27 Ibidem.
- 28 LEKUONA, J.M., op.cit., 24. or.

- 29 Bertsolaritzaren inguruko azterketa teorikoak ugarituko dira: LEKUONA, J.M. (1982): *Ahozko euskal literatura*. Erein. Donostia. Xabier AMURIZAk buruturiko hainbat lan didaktiko. Pedagogiaren ikuspegitik ere F. RODRIGUEZek eginiko *Bertsolaritza: formarik gabeko heziketa*, doktoradutza-tesia. Euskal Telebistak egin berri duen bertsolaritzaren inguruko “Hitzetik hortzera” programa eta abar luze bat.
- 30 J.M. TORREALDAIk, elkarlanean, bertsolariei eginiko inkestaren ondorioetan azaltzen denez (JAKIN 44, 1987, 104-121 or.) gero eta gazte jende gehiago arituko da plazaz plaza bertsotan.
- 31 Ikastetxeetan zein espreski ezarririko eskoletan irakatsiko dira bertsogintzarako teknikak.
- 32 SIADECOk eginiko azterketa sozio-linguistikoan zein TORREALDAI jaunaren *Euskal idazleak gaur* liburuan (1977, Jakin, Oñati) azaltzen diren datuen arabera, euskal irakurlekoa batipat Gipuzkoan kokatzen dela, hiri-girokoa, gaztea, erdi-mailako klasekoa eta ezker aldekoa dela ikusten da.
- 33 TORREALDAI, J.M. (1977): *Euskal Idazleak gaur*. Jakin. Oñati-Arantzazu.
- 34 SIADECO (1976): *Estudio socio-lingüístico del euskara*. X. tomoa, “El euskara en las editoriales y revistas”, 3.bol.: “La recuperación del euskara. Proceso de normalización lingüística”, 63. or.
- 35 Ibidem., 64. or.
- 36 Kriselu, Hordago eta Etor-ek literaturara joko duten bezala, Gero, Elkar, Erein eta Gordailu bezalako argitaletxeek ikastoletarako lan egingo dute bereziki, testugintza nahiz sorkuntzaren bitartez.
- 37 LANDA, J. (1988): “Argitaratzaileen jokabidea” in *JAKIN* 49, 68. or.
- 38 SIADECO op. cit., 41. or.
- 39 Ibidem., 51. or.
- 40 Ibidem., 73-75. or.
- 41 1989. urtean liburu-ekoizpenaren % 30 Elkar argitaletxearen esku egongo da, % 10-11 Erein-en esku eta, 10-15 libururekin ondorengo argitaletxe gehienak.
- 42 Ikus 1987, 1988, eta 1989 urteetako liburugintzari buruzko *JAKIN* aldizkariak (46, 50 eta 57 zenbakiak).
- 43 TORREALDAI, J.M. (1989): “1988ko euskal liburugintza” in *JAKIN* 50, 120-162 or.
- 44 Euskera, Bulletin du Musèe Basque, Munibe, Fontes Linguae Vasconum, Zeruko Argia, Herria, Anaitasuna, Príncipe de Viana, Goiz Argi, Jakin, Karmel, Egan, Olerti, Redención, Aranzazu, Othoizlari, Jaunaren Deia, etab.
- 45 Elhuyar 1974, Agur 1970, Hitz 1974, Punto y Hora de Euskal Herria 1976, Garaia 1976, Berriak 1976, Zabal 1973, Zehatz 1977, Gaiak 1976, Ustela 1975, Iratzar 1976, etab.
- 46 Azterketa zehatzago baterako ikus IZTUETA, P.: “Euskararen adierazpen soziala gerra ondoan (1937-1984)”, in INTXAUSTI, J. (1985): *Euskal Herria, errealitate eta egitasmu*. II. tomoa, 393-398 or.

- 47 Batzuk aipatzekotan: Susa 1980, Xaguxarra 1980-1981, Idatz & Mintz 1981, Maiatz 1982, Kandela 1983-84, Pamiela 1983, Korrok 1984, Ttu-Ttua 1984-85, Txistu y Tamboliñ 1984-86, Bat 1990, Larrun 1985, Antzerti 1982, Egats 1989, Hemen 1986, Aburu 1982, eta abar luze bat.
- 48 15.000 aletik gora izan ziren banatuak bere lehenengo urtean, Egunkariaren lehen urtebetetze-egunean aldiz 40.000 ale.
- 49 TORREALDAI, J.M., op.cit.
- 50 EKB, op. cit. 182. or.
- 51 Ikus, adibidez, OTAEGI, J.A. (1977): “Euskal liburugintzaz gogoeta inprobisatuak”, in *JAKIN* 4, 98-101. or.
- 52 TORREALDAI, J.M. (1980): “1979ko euskal liburugintzaz”, in *JAKIN*
- 53 Ikus adibide gisa Kultura eta Turismo Saileko 1985eko martxoaren 21eko agindua, 1986ko apirilaren 24ekoa eta 1987 irailaren 3koa.
- 54 EUSKALTZAINDIA (1972): “Alfabetatze batzordearen oinarri arauak”, in *EUSKERA* XVIII, 218-219 or.
- 55 EUSKALTZAINDIA (1972): “Euskal Irakasle Tituloa”, in *EUSKERA* XVII, 220-225 or.
- 56 UGALDE, M.: “Idazleei egindako galderek izan duten erantzunen azterketa laburra”, in *EUSKERA* XXIV (2. aldia), 481-501 or.
- 57 MENDIGUREN, X.: “Euskara batua eta irakaskuntza”, in *EUSKERA* XXIV (2. aldia), 523-531 or.
- 58 EUSKALTZAINDIA (1979): “Bergarako biltzar ondoko erabakiak”, in *EUSKERA*
- 59 EKB, op. cit., 65-66 or.
- 60 IZTUETA, P. op. cit., 400. or.
- 61 Lanketa teorikoa eta batez ere literatur mailakoa nagusituko da.
- 62 IRAZABALBEITIA, I.; MUJIKA, A. (1990): “Udako Euskal Unibertsitatea: helburuak, historia eta egoera”, in *JAKIN* 57, 99-120 or.
- 63 500-600 artean kokatzen da partaidetza-kopurua, hauetatik bizkaitar eta gipuzkoarrek % 80a osatzen dutelarik. Gazte-jendea batipat, eta urte batzuetan euskaldunberri ugari biltzen da bertan.
- 64 IRAZABALBEITIA, I.; MUJIKA, A., op. cit., 99-120 or.
- 65 Bertan lantzen diren sailak ikusteko *JAKIN* 34, 1985, 97-98 or.
- 66 IRAZABALBEITIA, I.; MUJIKA, A., op. cit., 99-120 or.
- 67 EKB, op. cit., 13. or.
- 68 EGIN, 1979ko azaroak 7.
- 69 EKB (1986): “Hiru urte t'erdiko balantzea” (Barne Txostena), 1go or.
- 70 Ikus EKBren barne-antolaketa, oinarriak eta egituraren bilakaera ondorengo barne-txostenetan: EKB (1986): “EKBren egituraketa”; “Hiru urte t'erdiko balantzea” (1986); “Batzarre nazionalerako txostena” (1987); “II. Batzarre Nazionala” (1988)
- 71 EKB (1990): “Euskalduntze-alfabetagintzaren I. Ihardunaldiak”, EKBko Euskalduntze-Alfabetatze Saila, I. or.
- 72 Ibidem.